Ziurrenik, bere garaian zerga gutxiago ezarri izan balituzte, eta Batzar Nagusietan bide eta zubiak konpontzeko eskuratzen zuten dirua hobeto banatu izan balute, beharbada giro ona mantenduko zen eta herriak ez ziren txirotuko beren herri-lurrak salduz.

Baina halaxe gertatu zen, eta herritartasunak desegin egin ziren 200 urte pasatxo igarota.

Herriek erregearen hiribildu-izendapenak ematen zuen pribilegioa erdietsi zuten eta beren mugak aitortu eta ezarri zitzaizkien notario bidez, "Mugatze-liburuarekin".


Hurrengo koadroan salbuetsitako herri batzuei dagokien lau datu.

HERRIA	ORDAINDU ZUENA		AUZOTARRAK	SUAK	ESERLEKUA	
Zegama	2.910.938	marabedi	310	19	Eskuinaldea	1
Idiazabal	2.407.031	id.	257 ¼	21	id.	2
Zerain	1.066.406	id.	113 ¾	10	id.	9
Ormaiztegi	998.437	id.	103	10	id.	8
Mutiloa	900.000	id.	96	10	Ezkerraldea	11
Astigarreta eta Gudugarreta	623.437	id.	76	8	Eskuinaldea	12

Jarraian, Goierriko eta eskualdeko herri bakoitzak Gipuzkoan duen kokapena erakusten duten bi marrazki barneratu ditugu, eskualdea zeharkatzen duten bi mendikate nagusietako argazkiekin batera.


Beasain hizki larriz agertzen da, izan ere, 10.000 biztanle baino gehiago dituen udalerri bakarra da (13.864). Datu hori estatus-aldaketarako baliagarria da herri administrazioko organoentzat.


GIPUZKOA
Bidasoa Beherea
Donostialdea
Deba Beherea
Urola-kosta
Tolosaldea
Deba Garaia
Goierri


GOIERRI
Zumarraga
Urretxu
Ezkio
Itsaso
BEASAIN
Itsasondo
Legorreta
Gaintza
Gabiria
Ormaiztegi
Legazpi
Mutiloa
Lazkao
Zaldibia
Zerain
Segura
Idiazabal
Ataun
Zegama
Enirio-Aralar
Parzonería general de Araba y Gipuzkoa


ALTZANIA MENDIKATEA
ERDIKO MENDIKATEA
ZUBE MENDIKATEA
Josetxo Zufiaurre 2009


ARALAR GOIERRITIK IKUSITA
Gorrotxategi
Josetxo Zufiaurre 2009


GOIERRI
Josetxo Zufiaurre 2009

Jarraian, herri guztiei buruzko datu zaharrak ikus daitezke. Horiek koadrotan eman ditugu hobeto uler daitezen.

Datu horiek Francisco Carreras y Candik zuzendu eta Serapio Mugica ormaiztegiarrak idatzitako "Euskadi eta Nafarroako Geografia Orokorra" liburuko "Gipuzkoako Probintzia" liburukian (1918an argitaratua) ageri dira.

Lehen koadroa herrian orduan zeuden harrobiei buruzkoa da, haien izena eta bertatik ateratzen zen materiala adierazita.

Udalerria	Harrobiaren izena	Izaera	Udalerria	Harrobiaren izena	Izaera
Astigarreta	Eureka-aundi	Kareharria	Lazcano	Unarkia	Kareharria
Id.	Manduvia	Ofita	Legazpia	Villarraitz	Kareharria
Ataun	Urkiola	Hareharria	Legorreta	Aitzibel	Kareharria
Id.	Arrateta	Kareharria	id.	Atizarte	Kareharria
Id.	Umarki	Kareharria	id.	Allegui	Kareharria
Id.	Lizarrusti	Kareharria	Mutiloa	Lankaran	Kareharria
Beasain	Arrateta	Kareharria	Segura	Azpillaga	Kareharria
Gaviria	Madariaga	Kareharria	id.	Karobieta	Kareharria
Idiazabal	Garakolea	Hareharria	id.	Zabala	Kareharria
Id.	Saskain	Kareharria	Villafranca	Allegui	Kareharria
Isasondo	Inchaurreta	Arbela	Villarreal	Gentil-aitza	Kareharria
Id.	id.	id.	id.	Urzelai-barrena	Ofita
Id.	Azubraloka	id.	Zumarraga	Guerra-errota	Kareharria

Bigarren koadroan azken 150 urtetan herri bakoitzeko biztanleriak izan duen bilakaera ikus daiteke.

URTEAK ETA BIZTANLEAK

Herria	1860	1900	1930	1960	1991	2012
Altzaga	218	178	207	248	94	162
Arama	103	124	147	205	143	200
Ataun	2.919	2.663	2.446	2.884	1.739	1.681
Beasain	1.448	1.932	5.260	7.610	12.322	13.864
Ezkio	880	664	537			
Gabiria	1.074	836	864	665	432	488
Gaintza	493	390	309	275	126	122
Idiazabal	1.694	1.423	1.326	2.055	2.075	2.295
Itsaso	557	600	535	473		
Itsasondo	623	525	734	908	640	677
Lazkao	1.069	947	1.588	2.960	5.037	5.438
Legazpi	1.320	1.266	1.913	6.319	9.831	8.639
Legorreta	883	652	822	1.317	1.522	1.483
Mutiloa	523	524	432	381	184	253
Olaberria	466	486	529	999	1.123	944
Ordizia	1.197	1.421	4.423	6.800	9.325	9.819
Ormaiztegi	721	639	684	1.004	1.235	1.303
Segura	1.531	1.278	1.203	1.748	1.428	1.483
Urretxu	989	1.110	1.727	4.877	6.066	6.929
Zaldibia	1.220	1.205	1.451	1.920	1.582	1.525
Zegama	2.487	2.055	1.803	2.043	1.399	1.557
Zerain	572	552	452	359	227	266
Zumarraga	1.393	2.034	2.480	6.987	10.899	9.970

Guztira 69.728

Hirugarren koadroan 6-12 urte bitarteko haurren eskolatze-indizea ikus daiteke herri bakoitzeko biztanleriarekin lotuta. Datuak XX. mendearen hastapenekoak dira, zehazki, 1908. urtekoak.

ESKOLATURIKO BIZTANLEAK ZUZENBIDEZKO BIZTANLERIAREN ARABERA. 1908. URTEA

Herria	Zuzenbidezko biztanleria	6-12 urte arteko eskolaturiko biztanleak	Portzentajea
Altzaga	181	21	11,60%
Arama	120	19	15,83%
Astigarreta	244	26	10,65%
Ataun	2.755	376	13,64%
Beasain	1.910	436	22,82%
Ezkio	702	124	17,66%
Gabiria	919	148	16,10%
Gaintza	415	80	19,27%
Idiazabal	1.550	240	15,48%
Itsaso	786	84	10,68%
Itsasondo	539	57	10,57%
Lazkao	1.017	170	16,71%
Legazpi	1.266	141	11,13%
Legorreta	683	113	16,54%
Mutiloa	549	78	14,20%
Olaberria	508	79	15,55%
Ordizia	1.452	360	24,79%
Ormaiztegi	674	104	15,43%
Segura	1.406	149	10,59%
Urretxu	1.117	191	17,10%
Zaldibia	1.383	90	6,50%
Zegama	2.188	222	10,14%
Zerain	599	67	11,18%
Zumarraga	2.002	320	15,98%

Horrenbestez, besterik gabe Julen Zabaleta Barrenetxeak egindako marrazki ederrak islatuko ditugu, herriak alfabetikoki ordenatuta, baina Beasain buruan paratuta.

BEASAIN

Asko izan dira gure herria identifikatzen duen toponimoaren jatorria eta esanahiaren inguruan defendatu diren teoriak. Gehien gustatu zaidana Juan de Dorronsoro Ceberio ataundarrak emandakoa da. Bera urte askoan gure herriko albaitaria izateaz gain, euskaren gramatika eta filologia ikertzen aritu zen.

Hark erretiroa hartu ostean izan genituen solasaldietako batean, teoria horren garapena azaltzen zuen idatzi bat erakutsi zidan. Eta oso zuzena iruditu zitzaidan. Hala, Beasain Jaietan urtekarian argitaratzeko baimena eskatu nion. Baietza eman ostean 1994ko urtekarian kaleratu zen. Oso interesgarri deritzot dokumentuari eta hona ekartzea erabaki dut.

Si un docto euskerólogo nos decía que el tratamiento de la toponimia era un terreno muy resbaladizo, el famoso historiador navarro Sr. Lakarra escribió que el día en que se recoja de forma fiel y sistemática el significado de los topónimos de Euskalerria, se nos revelará en su verdadera dimensión la extraordinaria riqueza del Euskera.

A lo largo del primer trimestre de 1984, aparecieron en la prensa varios artículos y réplicas (conservo hasta ocho) en los que se daban diferentes versiones sobre el significado del nombre de Beasain.

Diez años después, sin ningún ánimo de disputa, ofrezco esta versión, en esta revista de carácter local, a la luz de las modificaciones que el propio pueblo ha introducido en los topónimos en su hablar diario.

Lógicamente trato el tema en Euskera, ya que el nombre de Beasain pertenece a dicho idioma.

Leku-izen edo toponimia barrutia, txit labain eta irrixtakorra zala, esaten zigun, Euskera errotik ezagutzen zuan idazle batek.

Toki baten esanaia ongi jasotzeko, bertara azaldu, ta lekua bere inguruarekin zearo aztertu bear zala; ta argitasun zerbait jaso gabe etzala itzuliko, adierazten zigun, leku-izen asko jaso zitun apaiz jaun batek.

Eta iritzi jator oiei, ajola aundirik artu gabe; ta Euskera'ren sustrai ta senarekin erabat aztuta; gaiñera, aspaldiko oitura danez, euskal gaiak garbitzeko gaztelera erabilliz: BEASAIN leku-izenakin, eta bere esanaia argitu nairik; egundoko naspilla sortu ziguten.

AIN'en bukatzen zaizkigun itzekin, beti gertatu izan danez; BEASAIN itza dala-ta, elkarrekin antzik ere ez duten iritziak azaldu zizkiguten.

Berez illun eta zail degun gai au; Ikasi ta jakintsuak, oraindik geiago naspillatzen ba'digute; gure leku-izenen AIN bukaera, latiñezko ANUS'tik datorrela siñestea, jarriko gera, nai ta ez.

AIN bukaera duten baserri-izenak, naiko zalantza sortu izan didate; ta aietara inguratu naizanez, ia danak ixuri aundiko lurretan, eta amilka dijoan lats edo errekatxo baten inguruan daudela igarri diot.

Alegia, mundua dan ezkeroztik, uraren betiko eramanak, lur-azalean ebaki ditun sakan edo ibartxoetan daude, AIN nola ARAIN daramaten leku-izenak; eta ez Beasain'goak bakarrik, bai-ta Goierrian ezagutzen dituan geienak ere.

Beraz, AIN bukaerakin dago izpidea; ta orren jatorria ARAIN itzean dagola, naiko garbi ikusten degu. Eta ARAIN itzari R jatean, AIN gelditu dan bezelaxe, itz beraren I galtzeak ARAN, ARANA ta ARANE sortu dizkigu.

Eta ARAIN itza murriztu dan seiñalerik garbiena daukagu; oraindik leku-izen askok gordetzen digutela, ARAIN naiz ARRAIN idazkera. Ordea, geiena aldatu dituna, erria bera izan degu. Ta AIN-ARAIN, I birekin AIIN aozkatzen ba'digute; ARAN berriz, R jatean AAN gelditu zaigu: AANBU ta URSUAAN. Esango nuke, elkarrizketan, erria ez dala oartzen, leku-izenak R dutenik ere; ARANGUREN = AANGUUN; OYANGUREN = OYANGUUN; eta onela millaka leku-izenen aldaera.

BEASAIN'go leku-izenak begira nolako aldaketak izan dituzten:

Jatorriz bear zutena	**Gaur idazkera**	**Erriaren deitura**	**Jatorriz bear zutena**	**Gaur idazkera**	**Erriaren deitura**
Latsarain	Leasain	Leasiin	Gainzarain	Ganzarain	Gantzaiin
Astiatzarain	Astiasarain	Astixaiin	Barrendiarain	Barrendain	Barrundaiin
Untzarain	Unsain	Untxiin	BERASARAIN	BEASAIN	Beasaiindarrak Bareak

Eta GOIERRIAN, leku-izen asko daude, oraindik ARAIN deitura garbi gordetzen digutenak: Uelarain, Urdangarain, Amondarain, Zabarain, Berrarain,…

Beraz, AIN nola ARAIN'ek adierazpen bat duten; beste millaka leku-izen: ARRAIN, ARAN, IBAR, ARATZ, bukaera dutenen lerroan jarri litezke, esankizun berdintsua dutelako. Iritzi ori zun, ON JUAN ARIN, apaiz jaun apal eta jakintsuak.

Ara or, Naparroa'n, BERASAIN; Gipuzkoa'n berriz, BERASTEGI ta BERASATEGI; eta erritarrak, R eta G izkiak janez BEASTEI deitzen dienak.

Usurbe mendiaren magalean jaio ta milka datorren errekatxoaren alboan, BEASAIN erriaren biotz-biotzean; ortxe ziran garai bateko: ARANE-ZAR baserria, ARANE TXIKI (Santiñeko ogitegia); ARANBERRI baserria (Gaur Udaletxea dagon lekuan) eta ARANE-AUZO'aren goenean daukagu ARANGOITI gaixo-etxea.

Euskal leku-izenei dagokienez, gogora dezagun, abereak zaintzea zala, gure aurrekoen bizibidea. Ta artzai ziren arren, lekuan-lekuari, bere izatez eta balioz, garbi ezagutueraziko zun izena, egoki asko, ipiñiko zioten.

Beraz, nola arritu, abere taldearen atzetik, larre xamur eta ugarien billa zebiltzen aiek; larre-leku oparo batekin arkitzean: Berazadi, Berasaluze, deitzea; gure sakaneko larreei, BERASARAIN bezela?

Ta esanai garbiko, BERASARAINI, eguneroko jardunean, R biak jaten dizkio erriak, eta esanai garbirik ez duan BEASAIN nola BEASIIN deituz laburtzen.

Napar ta istorizale ospetsu dan, LAKARRA jaunak idatzia degu: "EUSKALERRIKO toki-izenen esanaia, zeatz eta zintzo jasotzen dan egunean; azalduko dala, gizonen aurrean, EUSKERA'ren aberastasun arrigarria".

Aurreko kapituluan ikusi dugunez, herritarturiko kolazioak askatu eta hiribildu izena hartu zuten berez eta beren baitan, erregetzak 1615eko otsailaren 4ko hiribildutasun-gutuna onartuta.

Beasaini dagokionez, bai joan den mendearen amaieran transkribatu nuen Mugatze-liburuan eta bai Simancaseko Artxibategitik igorri zidaten dokumentuan, askatze eta izendapen hori baieztatzen duen dokumentua ikus daiteke. Eta orokorki ezagutu ahal izan dadin, hemen transkribatuko dut segidan.

Asiento hecho con el Rey nuestro Señor.

Lo que por mandado del Rey Nuestro Señor se Asienta y Concierta con el Concejo y Vecinos del Lugar de Beasain que al presente es de la Jurisdicción y Juzgado de la Villa de Villafranca de la Provincia de Guipúzcoa y con el Licenciado Martín Ybañez de Ubaiar en su nombre y por Virtud del Poder que le dio el dicho Concejo en ocho de Junio del año pasado de mil y seiscientos y catorce años en el dicho lugar ante Felipe de Arcilla Escribano de su Majestad y del numero de la Alcaldía mayor de Hareria que originalmente queda asentado en los Libros de la Secretaría de la Real Hacienda del Oficio del Señor Secretario Alonso Nuñez de Valdivia de que Yo el presente Escribano doy fe sobre eximir y apartar el dicho Lugar de Beasain de la Jurisdicción de la dicha Villa de Villafranca y darle Jurisdicción de por sí y sobre sí en todos sus términos es como se sigue.----------

Primeramente que por cuanto por parte del dicho Lugar de Beasain se hizo relación a su Majestad en su Consejo de hacienda que el dicho Lugar y sus vecinos siendo libres se había unido y entrado de su voluntad por vecinos de la dicha Villa y después acá han tenido con ella muchos pleitos y al presente los tratan en que han gastado y gastan mucha suma de dinero sobre preeminencias y cosas que la dicha Villa pretende contra el dicho Lugar.- Como anexo al Juzgado y Jurisdicción que tiene en él y que con esta ocasión han sido y son muchos los malos tratamientos y molestias que reciben de la dicha Villa de Villafranca además de que en los dichos pleitos con sus mismos votos o fuegos hacen contra ellos contribuyendo en los gastos de la dicha Villa y que el dicho Lugar de Beasain tiene términos, límites y gobierno distinto y apartado de la dicha Villa y ella sobre el solamente jurisdicción con solo el título de habérsele encomendado cuando tenían menos vecindad y que al presente el dicho Lugar está muy extendido y tiene muchos vecinos y si se eximiesen de la dicha Villa se extendería mucho más la población y se introducirían buenos libretos para gobernar la república tanto más siendo como son todos originarios de la dicha provincia de Guipúzcoa y descendientes de sus fundadores y podrían acudir mejor y con más presteza a las ocasiones que se ofrecen y puedan ofrecer del servicio de su Majestad sin tener necesidad de acudir primero a la dicha Villa, aguardar su órden y que haciendo su Majestad merced al dicho Lugar de Beasain de eximirle de la dicha jurisdicción y juzgado de la dicha Villa de Villafranca y hacerles Villa de por sí dádole jurisdicción civil y criminal alta baja y mero mixto imperio sujeta al corregimiento de la dicha Provincia de Guipúzcoa en la forma y con las preeminencias que tienen las demás Villas de la dicha Provincia y como se concedió últimamente

a la Villa de Legazpia que era de la jurisdicción de la Villa de Segura y que como una de ellas pueda acudir por su Procurador a las Juntas Generales y particulares que las otras Villas y Alcaldías de la dic ha Provincia hicieren para tratar de las cosas que se ofrecen y darle privilegio de ello en bastante forma servirá a Su Majestad por esa merced con lo que fuere justo lo cual visto en el Concejo de hacienda de su Majestad y las diligencias que sobre ello hizo el Licenciado Hernando de Ribera que por comisión de su Majestad fue a la dicha Provincia de Guipúzcoa a tratar de este negocio y de otras cosas con su parecer ha tenido su Majestad por bien de hacer merced al dicho Lugar de Beasain de concederle la dicha exención de la dicha Villa de Villafranca y hacerla Villa de por sí y sobre sí en la forma y con las condiciones siguientes.----------

Que su Majestad como Rey y Señor natural de estos reinos y de la dicha Provincia de Guipúzcoa hace merced al dicho Lugar de Beasain de eximirle del Juzgado y Jurisdicción de la dicha Villa haciéndole Villa de por sí y sobre sí con Jurisdicción Civil y Criminal alta baja mero mixto imperio en todos sus términos sujeta al corregimiento de dicha Provincia de Guipúzcoa de la forma y con las preeminencias que tienen las demás Villas de ella y que como una de ellas pueda acudir por su Procurador a las Juntas Generales y particulares que las Villas y Alcaldías de la dicha Provincia hicieren para tratar de las cosas que se ofrecieren en las que les sea llamado y admitido el Procurador de la dicha Villa de Beasain con los votos foguearles que tiene dándole el asiento que le tocare prefiriendo entre sí el dicho Lugar y otros de la dicha Provincia a quien Su Majestad ha concedido la misma exención conforme a la vecindad que cada uno tuviere de manera que el que la tuviere mayor prefiera al que la tuviere menor y que para la administración de Justicia haya de haber y haya en la dicha Beasain un Alcalde ordinario con Teniente para los tiempos que el Alcalde hiciere ausencia de ella y los regidores y demás oficiales que hay al presente y la elección de ellos se haya de hacer a los tiempos que hasta aquí se ha hecho guardando en ello la costumbre que se ha tenido de lo pasado y que el Alcalde ordinario que por tiempo fuere de la dicha Beasain y en su ausencia el dicho Teniente y los demás oficiales de él hayan de usar y usen en ella y en todos los términos la dicha Jurisdicción según y de la forma y manera que la usan y ejercen los Alcaldes ordinarios y los otros oficiales de las demás Villas y lugares de la dicha Provincia cada uno en sus términos sin que le falte cosa alguna lo cual se haya de hacer así. Sin embargo de la unión que la dicha Villa de Beasain hizo avecindándose en la dicha Villa de Villafranca y otra cualquiera cosa que haya en contrario.----------

Item es condición que los pleitos que estuvieren pendientes y por sentenciar ante la Audiencia de la dicha Villa de Villafranca contra cualesquier vecinos de la dicha Villa de Beasain así Civiles como Criminales ejecutivos al tiempo que se le diere la posesión de la dicha exención y Jurisdicción se habían de remitir y remitan en el estado en que estuvieren al Alcalde ordinario de la dicha Beasain y se le entreguen los procesos que en razón de ello hubiere culminados con los presos y prendas que se hubieren llevado a la dicha Villa de Villafranca y estuvieren en ella para que dicho Alcalde conozca de los dichos pleitos y los sentencie y acabe y haga justicia en ellos lo cual se haya de hacer no embargante que hasta entonces no se le haya dado por Su Majestad Privilegio de la dicha merced.----------

Que ningunas Justicias, Fieles Jurados, Almotacenes, Guardas de montes ni otros Oficiales ni personas de la dicha Villa de Villafranca puedan entrar ni entren en la dicha Villa de Beasain ni en su término y Jurisdicción a hacer ningunos autos ni ningún acto de jurisdicción ni de lo que hasta aquí hacían o podían hacer por causa de dicha Jurisdicción y Juzgado o en otra cualquiera manera que sea so pena de treinta mil maravedís por cada vez que contraviniere esto aplicados por tercias partes para la Cámara de Su Majestad, Juez y Denunciador además de las penas en que incurren los que entran en jurisdicción ajena a usarla, porque la dicha Villa de Beasain y sus vecinos han de quedar eximidos y apartados de la dicha Villa de Villafranca y su Jurisdicción y Juzgado y vecindad, como si nunca hubieran sido sometidos a ella ni hubieran tenido en ella dependencia alguna.----------

Que luego que se haya aprobado esté así entre tanto se haya de dar y dé comisión a un juez que a costa de la dicha Villa de Beasain y de sus propios vecinos particulares vaya a darle la posesión de la dicha Jurisdicción y hacer la elección primera de dicho Alcalde y su Teniente y los demás Oficiales que conforme a lo susodicho, adelante ha de hacer allí y deslindar y amojonar sus términos con los lugares comarcanos en la forma que se acostumbra y hacer cumplir y ejecutar lo demás contenido en este asiento y habiéndolo hecho averigüe los vecinos que tiene.----------


Item que Su Majestad haya de aprobar y apruebe este asiento y luego que de éste se haya de dar y dé a la dicha Villa de Beasain principio en forma de la dicha exención y jurisdicción y de lo demás que queda referido con todas las cláusulas, fuerzas y premisas con que se han dado a otros pueblos a quien se ha concedido semejante exención y jurisdicción y como más convenga a la dicha Villa a contento de sus letrados con que si algunas Villas y Lugares comarcanos a élla tienen algunos usos y aprovechamientos comunes en los términos de ella, o la dicha Villa en los términos de otros hayan de quedar y queden como ahora lo están, sin que en cuanto a esto se haga novedad alguna, pero si la dicha Villa de Villafranca y vecinos de ella gozan en los términos de la dicha Villa de Beasain de algunos aprovechamientos que le hayan competido solo por causa de la dicha sumisión y juzgado y que de otra manera no se debieran no han de poder adelante aprovecharse ni gozar de ellos ni de parte alguna de ellos porque todas las cosas dependientes de la Jurisdicción y Juzgado que la dicha Villa de Villafranca ha tenido en la dicha Villa de Beasain han de quedar despojados ella y sus vecinos para siempre jamás.----------

Que la dicha Villa de Beasain ha de servir a Su Majestad por la merced que le hace de la dicha exención y jurisdicción con veinte y cinco ducados que valen nueve mil trescientos setenta y cinco maravedíes por cada vecino de los

que hubiere en élla y en sus términos en reales de contado dentro de treinta días después que se trugere a los Libros de Su Majestad la averiguación de la dicha vecindad y se hubiere hecho la liquidación de ella conforme está acordado y que se le haya de dar Facultad Real para que lo que montare todo ello, y las costas justas que en este negocio se han hecho y se hicieren lo pueda tomando a censo en una o más sobre sus bienes propios y rentas y para que para el dicho efecto y redimir y quitar el dicho censo y pagar los réditos que le pueda echar lisa en los mantenimientos que en dicha Villa de Beasain y sus términos y jurisdicción se vendieren excepto en el pan cocido hasta haber sacado de ello las dos tercias partes de lo que montare la dicha exención y costas de ella y réditos de los censos que para ello tomaren y la otra tercia parte la puedan repartir entre los vecinos de la dicha Villa de Beasain y en sus términos y jurisdicción repartiendo cada uno conforme a la hacienda y bienes que tuviere sin hacer agravio a nadie en contra de esto.----------

Con las cuales dichas condiciones el dicho Licenciado Ubaiar en nombre de la dicha Villa de Beasain y en virtud del dicho su poder aceptó la dicha misión y obligó los bienes propios y rentas de la dicha Villa de Beasain y de los vecinos particulares de ella muebles y raíces habidos y por haber, de que pararán a Su Majestad o a su Tesorero General en su nombre o a quien Su Majestad fuere mandado, todo lo que montare la dicha exención conforme a la averiguación que se hiciere de la dicha vecindad puesto en esta Corte en real de contado en las Arcas de tres llaves con intervención de los contadores de la razón de la real hacienda que tienen las llaves a su costa y riesgo al dicho plazo so pena que si no lo hiciere y cumpliere pueda ir y vaya una persona de esta Corte a lo cobrar con quinientos maravedíes de salario cada día por los cuales como por el principal y traída del dinero y demás costas que sobre ello se recrecieren puedan ser ejecutados como por maravedíes y haber de Su Majestad hasta hacerle entero y cumplido pago de la dicha cantidad, y para más seguridad hipoteco Jurisdicción y merced que Su Majestad les ha hecho sin que la obligación general derogue a la especial ni por el contrario, y dio poder cumplido a cualesquiera instancias de Su Majestad y en especial a los señores Presidente y del Consejo de hacienda quedó por sentencia pasada en juzgado renunció las leyes de su favor y la general del derecho. Y lo otorgó así en la Villa de Madrid a veinte y seis de Enero de mil y seiscientos y quince. Testigos Francisco de Bustinsoro Berastegui vecino de San Sebastián y Domingo Mitezar vecino de Idiazabal que juraron en forma conocer el dicho otorgante y ser el aquí contenido y asimismo fue testigo Juan Ibanes estante en Madrid y el dicho otorgante firmó el Licenciado Ubaiar. Ante mí Melchor Vazquez de Moran. E yo Melchor Bazquez de Moran criado de Su Majestad su Escribano y Oficial de la Secretaría de su Real Hacienda fui presenté y lo signé. En testimonio de verdad. Melchor Bazquez de Moran. El Rey por cuanto por mi mandado se tomó el asiento y concierto de esta otra parte escrito con el Concejo y Vecinos del Lugar de Beasain en la Provincia de Guipúzcoa y con el Licenciado Martín Ibáñez de Ubaiar en su nombre y en virtud de su poder sobre la merced que hago al dicho Lugar de eximirle de la Jurisdicción y Juzgado de Villa de Villafranca y hacerle Villa de por sí y sobre sí con Jurisdicción Civil y Criminal alta baja mero mixto imperio en todos los términos y darle Privilegio de todo ello por lo cual han ofrecido de servirme con el precio y al plazo y con las condiciones y en la forma contenida en el dicho asiento. Por ende por la presente le apruebo y ratifico prometo y seguro por mi palabra real que cumpliéndose por parte del dicho Lugar lo que le toca de lo en el contenido mandaré cumplir y se cumpla de la misma lo que me toca. Sin que con ello ni en parte de ello haya falta ni innovación alguna del cual dicho asiento y de esta mi cédula han de tomar la razón el contador del libro de caja de mi hacienda y los de la razón de ella fecha en Madrid a cuatro de Febrero de mil seiscientos y quince años. Yo el Rey. Por mandado del Rey nuestro señor Alonso Nuñez de Baldivia.


Beraz, hasi gaitezen Julen Zabaleta Barrenetxea Jaunaren marrazkiekin gozatzen.




Udaletxea. Beasaingo udaletxeko eraikinak 1924. urtera arte izan zuen itxura. Urte hartan inauguratu zen egun ezagutzen duguna.

Herriko administrazio-bulegoekin batera, bertan zeuden telegrafoen bulegoa eta beste zerbitzu batzuk.

Edozein modutan, hurrengo marrazkian eraikin horren zati bat ikus daiteke antzina zuen itxurarekin, izan ere, "beheko plaza" zeritzonak bi teilape besterik ez zituela antzeman daiteke. Bertan ospatzen zen azoka euria zenean.






Hemen egun udaletxea hartzen duen eraikina ikus daiteke. Eraikin hori 1924ko urriaren 26an inauguratu zen eta, udal-bulegoez gain, eskola publikoak ere bertan lekutzen ziren. Aldi berean, Loinazko San Martin plaza berria ere inauguratu zen.

Gasteizko elizbarrutiko On Mateo Mujica Urrestarazu gotzainak bedeinkatu zituen instalazio berriak. Gotzaina adopziozko seme izendatu zuten herrian. Idiazabalen jaio bazen ere, urte bat baino ez zuela Beasainera mugitu zen.

On Jose Guridi Balanzategui zen orduan herriko alkatea.

Fatxadan agertzen den arkupea Etxeberria etxeak aldez aurretik zuenaren kopia da. Aipatu etxea lehen marrazkian ikus daiteke, udaletxearen ezkerrera. Etxe horretan jaio zen 1820ko otsailaren 17an herriko ongile handia izan zen Martina Maiz Bagazgoitia andrea, Benefizentzia Etxe bikaina oparitu baitzion herriari.

Beasaingo Udalak etxe hori erosi zien oinordekoei 1914ko ekainaren 13an. Modu horretan, udaletxe osoa berritu ahal izan zen.



Andre Maria Zeruratuaren Parrokia

Oso antzinatik Beasainek, beste herri askok bezalaxe, gurtzarako bere eliza bazuen ere, gaur egun Beasainen dagoen parrokia XVI. mendean hasi ziren eraikitzen. Parrokia jasotzerakoan eraiki zen lehen zatia basilika-oinplanoa duen nabea izan zen.

Harlangaitzezko murru garaiak kanpoaldeko kontrahormekin indartzen dira. Kontrahorma horiek sostengu lana egiteaz gain, eraikinaren gangak eta sabaiak duten pisua eusten dute.

Geroago eraiki ziren Belengo Ama Birjinaren kapera (erretaula rococo ederra ageri duena, Igartzako jaunekin lotzen dena), artxibategia, dorre karratu sendoa, egungo sakristia eta egurrezko egitura zuen atari handia. XVIII. mendearen azken herenera arte itxaron behar izan zen guztia amaiturik ikusteko.

Barnean, arte-adierazpen nagusia Aldare Nagusiko erretaula da. Estilo barroko madrildarra du eta 1671n eraiki zen Gaintzako semea zen Juan de Ursularreren eskutik. Erretaula hori interes kulturaleko ondasun izendatu zen.

Loinazko San Martineko erretaula 1897an estreinatu zen, gure santuaren martiritzaren hirugarren mendeurrenaren ospakizunetan.



Loinazko San Martinen Parrokia. Basilika

Egun dagoenaren aurretik, kokapen berean zegoen tenplu zaharra 1691ko maiatzaren 2an bedeinkatu zen. Eraikuntza hori Udalak (%25) eta Foru Aldundiak (%75) ordaindu zuten. Diru hori jasotzeko Gipuzkoako herri guztietan, salbuespenik gabe, bilketak egin ziren. Inork ez zuen zalantzan jartzen santua beasaindarra zela.


1847an Loinazko San Martineko martiritzaren 250. urteurrena ospatzen zen. Haren ohorean eraikitako basilikak gangak eroriak zituen aipatu data baino urte bete lehenagotik. Hori dela eta, ohiko meza eta gurtzak ezin izan ziren ospatu. Oñatin egindako Probintziako Batzar Nagusietan, Beasaingo ordezkariek gertakizun haren berri eman zuten, basilika egoera txarrean zegoela jakinaraziz.

Ordezkari horien arabera, oin berriko basilika bat eraiki behar zen, izan ere, haren zati handiena Probintziaren jabetzakoa zen. Hala, egun dagoena eraiki zen (marrazkian ikusten dena) Mariano Jose de Lascurainek egindako diseinuari jarraiki.



Loinazko San Martinen Ganbera Santua

Ganbera Santu hau, Amunabarro baserrian Loinazko San Martin jaio zeneko gela kokatuta zegoen tokian egina da. Bere familiak elizari baimena eskatu ondoren egin zuten, eta etxea erre zenean, toki berean kapera eraiki zuten.



Loinazko San Martinen Oroitarria

1962an, Loinazko San Martin santu egin zuteneko ehun urte bete ziren eta beasaindarrek, urte osoan zehar, ospakizun ugari egin zituzten.

Ospakizun haietako garrantzitsuena, herriko tokirik ederrenean seme ospetsuenari eskainitako gizairudia eraikitzea izan zen.


Bere ordainsaria osatzeko herri guztiak hartu zuen parte, eta otsailaren 5ean bedeinkatu zen.




Antzinako Loinazko Andre Mariaren Ermita. Antzinatik 1727. urterarte Gipuzkoako lau perietako bat hemen egiten zen.



Gaurko Loinazko Andre Mariaren Ermita.




San Andresen Ermita.



Ezkiagako Auzoko Kristo
Gurutziltzatuaren Kapera.



Itxura hau izango zuen Igartzak XIX. mendean.



Zeharrolaren indusketan azaldu zenaren itxura.



Igartzako Jauregia

Gure jauregia garai hartan probintzia osoan eraikitako eraikin zibil txukunena dela esan daiteke. Horregatik, inbertsio handia egin da hura birgaitzeko, bai Beasaingo Udalaren aldetik, bai Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskutik eta baita Kutxa Fundazioaren aldetik ere.

Igartzako zubia oso garrantzitsua zen, Iruñea Bizkaiarekin eta Gaztela Frantziarekin lotzeko bideak bertatik igarotzen baitziren. Hori dela eta, jauregia inguruan eraiki zen. Badira XII. mendean zubi hori eraikita zegoela berresten duten dokumentuak eta 1480. urtera arte jauregiko jaunak bidesaria kobratzen zien hura zeharkatzen zutenei.


Dorretxe hori XV. mendearen amaieran suntsitu egin zen Gipuzkoako hiribilduen ermandadearen eraginez. Orduan eraiki zen egungo jauregia, Euskal Herrian egurrezko egitura duten jauregien arkitekturan erreferente dena.

Aurrerago dagoen marrazki batean eraberritu ondoren kanpotik hartu zuen itxura ikus daiteke. Barnean, erdigunea hartzen duen atari ederraz gain, beste hainbat areto gaitu dira egokiak, besteak beste, erakusketak edota batzarrak egiteko. Areto horiek askotariko kultura-ekitaldietan nahiz gizarte-ekitaldietan erabiltzen dira.


Altxorra da zinez, beasaindarrok zaindu behar duguna.




Barruko armailak.




Erdiko patiora dituen lehen solairuko pasabideak.



Igartzako jauregia berritua.



Igartza multzoko Belengo Andre Mariaren Ermita.



Igartzako zubia eta Dolarea

Lehen planoan arestian aipatu dugun zubia ikus daiteke. Zubi mardula da, nafarrek gaztelaniaz *recio* hitzarekin deskribatuko luketena. Bi begi ditu eta erdian zubi-branka. Uhaldi handietan bi begi horietan zehar emari guztia bideratu ezinik, zubiak presa lanak egiten zituen eta urak gainezka egiten zuen bi alboetatik. Baina zubiak tinko jarraitzen du.


Bigarren planoan Dolarea etxea nabarmentzen da. Hori ere Igartzako jaunen jabetzakoa.

Izenak adierazten duenez, bertan sagardoa egiteko dolare bat zegoen. Gaur egun, eraikinaren barnean dolare hura osatzen zuten zurezko habe eta torlojuak daude ikusgai.

Gure zaharren arabera, garai batean zalditegi gisa ere erabili zen. Hala, ordezko zaldiak gordetzen ziren bertan, hara iristen ziren diligentzietan zaldiak aldatu behar zirenerako.

Gaur egun, antzinako jauretxe horren barnean lau izarreko hotel moderno bat dugu. Hotelak bertako logelak eta jatetxea eskaintzen dizkio herriari eta eskualdeari.

Marrazkian ezkerrera, Igartzako gurutzaduraren soslaia antzeman daiteke. Elementu horrek aurrez aipaturiko bidegurutzearen garrantzia (Iruñetik Bizkaira eta Gaztelatik Frantziara joateko) uzten du agerian.



Igartzako Errota

Errota ere jaunaren zerbitzura zegoen multzoan barneratzen zen.


Eraikinaren atzealdean turbinak abiarazteko ur-depositua kokatzen zen. Depositu hori betetzeko 300 metro gorago zegoen presa batetik ura hartu eta erreten batekin bideratzen zen.

Erreten bera baliatzen zen geroago ikusiko dugun burdinolako gurpilak mugiarazteko ura bideratzeko.


Presa 1982ko urrian suntsitu zen. Ordura arte errota horretan, gehienbat, garagarra ehotzen zen baserrietako aziendentzat pentsua egiteko. Artoa ere ekoizten zen, baina kopuru txikiagoan.

1924. urtera arte, errota izateaz gain, laborantzarako baserria ere izan zen. Hala, erdialdean azienda sartzeko ukuilua zegoen, ezkerrera errota eta eskuinera familiaren etxebizitza geratzen zirelarik. Urte hartan azienda atera eta haren tokian labea paratu zuten. Modu horretan, okindegi ere izan zen.

Errotariaren etxebizitza zegoen lekuan, gaur egun Done Jakue bidearen Aterpetxea dago, bidea egiten duten oinezko ugarik erabiltzen dutena, batez ere udan.



Igartzako zeharrola. Jatorrizko aldaparoa eta, lehengo aztarna zaharren gainean, orain eraikitakoa.




Igartzako Bideko Gurutzea


Bidegurutzeak zuen garrantziaren adierazle da gurutzadura.

Joan den mendean zehar beste leku batzuetan kokaturik egon zen, Dolarea eraikinaren albo batean zein bestean. Baina, beti bi bideek bat egiten zuten puntutik oso hurbil.


XVI. mendearen amaieran altxatu zen, 1599an Martin de Albisu presbitero beasaindarrak herentzian emandako aginduari jarraiki.



Errementari. Errementariaren etxea eta lantegia. Bertan, abereak perratzeaz gain, nekazaritzarako eta baserrietarako behar ziren tresnak (laiak, areak, etab.) egiten ziren



Zapatari. Ugalgilearen etxea eta lantegia. Olagizonen kapusai eta oinetakoaz gain, etxerako beasaindarrek behar zituztenak egiten zituen.



Arbitrio Etxea


Geltokiaren aldamenean lekutzen den eraikin horretan probintziako Mikeleteak egon ziren hainbat urtez, 1936. urtera arte. Zehazki esatera, Beasaingo destakamenduko kideak egon ziren.

Denbora luzez haiek arduratzen ziren herrian sartzen ziren merkantzien arielak kobratzeaz.

1897an Foru Aldundiak Gipuzkoako Probintziako Aurrezki Kutxa sortu zuen eta ordutik mikeleteak arduratzen ziren haren kudeaketaz. Hala, beasaindarren aurrezkiak jaso eta nahi zutenean leheneratu egiten zituzten.

1962-1980 bitartean Udal Liburutegi Nagusia hartu zuen eraikinak.

Eta laurogeigarren hamarkadan Gurutze Gorriko Asanbladak Goierri behean zuen egoitza izan zen hainbat urtez.



Katearen Zutarria


Antzizar kiroldegiaren sarreraren parean dago monumentu hau eta Beasaingo Katea eusten zuen jatorrizko zutarri nagusia izan zen, alajaina!

Katea foruen garaiko elementu bat zen. Kate horrekin herriek sarbideak ixten zituzten, saltzeko asmoz herrian sartzen ziren merkantziei udal arielak kobratzeko.


Beasaingo Katea Antzizar auzoan zegoen. Auzo horretan elkartzen ziren Gaztela eta Bizkaitik herrira iristen ziren bideak eta garai hartan Katea auzoa izenez ezagunagoa zen.

Foruak desegitean eginkizun hori ere desagertu egin zen eta zutarria desmuntatu egin zen. Dena den, oinarria eta fustea bertan utzi iren Piparrenea etxeko mendebaldeko fatxadaren aurka botata. Bertan egon ziren 1982. urtera arte.


Monumentu gisa jarri zen gerora, foruen oroigarri gisa, 1995eko urriaren 17an.




Trenbideko geltoki zaharra. 1862. urtean Gipuzkoan trena abian jarri zenetik, Beasainek bigarren mailako geltoki garrantzitsua izan zuen.



Trenbideko geltoki berria, 1981-7-29an irekia.



Egoitza nagusia eta kutsatuen pabilioia.




Benefizientziako Kapera.

Benefizentzia eta Zaharren Egoitza

Benefizentziako etxea Martina Maiz Bagazgoitia beasaindarrak eman zion herriari dohaintzan.

Arangoiti baserria eta hartako etxaguntzak erosi eta haiek erauzi ostean, eraikin nagusia eta kapera eraiki ziren, 1882ko urriaren 1ean inauguratu zirenak.

Hogei urte baino gehiago igarota, On Jose Miguel Iturrioz alkate zelarik, beste solairu bat gaineratu zitzaion eta kutsatuen pabilioia eraiki zen.




Urbieta Arte Plastikoetako Zentroa

Hasiera batean, eraikina udal hiltegia hartzeko eraiki zen. Hiltegi hori 1930eko abenduaren 31n inauguratu zen eta garai hartan probintziako onena zen. 60 urte egin zituen jarduera horretan eta azken 20 urteetan eskualde mailakoa zen.


Herrian jarduera hori eten zelarik, zaharberritu eta egokitu egin zen diziplina anitzeko zentro modura. Hala, kultura-ekintza ugari biltzen da bertan, adin eta izaera orotariko beasaindar ugarik parte hartzen dutelarik.

Besteak beste honako hauek aurki ditzakegu bertan: 13 eta 17 urte bitarteko neska-mutikoen gaztelekua, marrazki eta pintura tailerra, zeramika eta esmaltaketa tailerra, ballet eskola, antzerki tailerra eta Goieniz zine klubaren, ARGIZPI azgazkizaleen eta Goierriko irratizaleen lokalak. Gainera, lokal horiek Kantujira taldearen entseguetarako eta ASMUBE elkarteak antolatutako hainbat ikastaro emateko erabiltzen dira.


Halaber, eskualdeko premietarako bi lokal daude bertan, hain zuzen, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionala (GSIN) eta Enplegurako Institutu Nazional zaharra (EIN). Azken hori egun Lanbide bihurtu da eta lanarekin eta langabeziarekin lotutako gaiak tratatzen dira.



Nafarroa etorbidea geltokitik gora.




Agerre baserria.




Agerrezabal baserria.




Angio Errota. Frantzisko Ormazabal, jesulaguna, txinako misioetan 47 urtez ardura handiko karguak izan zituena, 1877an etxe honetan jaio zen.




Aranburuazpikoa baserria.




Barrendain baserria. Geltokia baino gorago trenbideak bete-betean harrapatu zuen eta ezagutu genuen tokian berreraiki zuten. 1972ko abenduan bota zutenean ehun urte baino ez zituen.




Ezkiabaso baserria.



Gaztelu baserria.



Igartetxe baserria.




Irigoien baserria.




Loinatzazpikoa baserria.




Mariarats baserria.




Mugartegi baserria.




Muttegienea baserria.




Nekola baserria.




Piparrenea baserria. XX. mendean taberna ere izan zen.




Txintxurreta baserria.



Urbi baserria.



Urbiñarte baserria.



Usategi baserria.



Zaldizurreta baserria.



Zelaietazar baserria.



Arriaran auzoa.




Arriarango San Pedroren Parrokia.



Astigarreta auzoa.




Astigarretako Tourseko San Martinen Parrokia.



San Gregorio Handiaren Ermita.






Garin auzoa.




Garingo San Sebastianen Parrokia.




Gudugarreta auzoa.




Matxinbenta auzoa.



Matxinbentako Loinazko San Martinen Parrokia, 1790. urtean sagaratua.



Igartzola. Antzinako zeharrola eta geroko errota.



Pagorriaga baserria.

ALTZAGA

Leku honetan finkatu ziren lehen biztanleak beren artaldeak bazkatzera Aralarreko mendikatera eramaten zituzten pertsonak zirela esan daiteke, mendi horren inguruko gainerako guneetan bezalaxe.

Etimologian aditua izan beharrik ez dago Altzaga izena euskarazko "Altz" hitzetik datorrela baieztatzeko. Betulazeoen familiako zuhaitz hori oso ohikoa da leku hezeetan.

Horrenbestez, izenak adierazten duenez, haltzez beteriko lekua zen. Tradizionalki, haltzaren egurra aski erabili dute gure baserritarrek uztarriak egiteko. Modu horretan, azienda uztartu egiten zuten garraio eta landa-lanean erabiltzeko.

1399ko apirilaren 8ko herritartze-gutunean (liburu honetako lehen kapituluan ageri dena) egiazta daiteke data horretan herritartu zela Altzaga Villafrancarekin, gutun horretan aipatzen diren gainerako herriekin batera.

Eta gainerako herriek bezalaxe, independentzia erdiesteko Koroari hiribildutasun-titulua erosi zion 1615eko otsailaren 4an sinatutako askatze-gutun bidez. Modu horretan, berezko udaletxea zuen hiribildu bilakatu zen.

Urte hartan, aske geratu ziren herriek (Altzaga, Arama, Gaintza, Legorreta eta Zaldibia) elkartu eta Oria ibaiaren Batasuna osatu zuten. Horrela, Probintziako Batzar Nagusi eta Partikularretara ahalordedun bat igortzeko kostua guztien artean ordain zezaketen, izan ere, han eskubide osoko eserlekua zuten. Batasun hori 1845. urtean desegin zen, berrehun eta hogeita hamar urte ondotik.

1967an Altzaga Itsasondora atxiki zen eta udaletxea partekatzen zuten. Dena den, 1990. urtearen hasieran Altzagak udal-eskumenak berreskuratu eta berezko udaletxea finkatu zuen.


Herriko parrokia San Migel Arkanjeluari eskainitakoa da. Horregatik, herriko festak irailaren 29an hasi eta hurrengo egunetan luzatzen dira.

Herriaren gainaldean Altzagarateko Andre Mariaren izena duen ermita bat dago, izen bereko gailurrean.


Aipagarria da herriko plazan dagoen arte bikaina, dagoeneko oso herri gutxik mantentzen duten usadio zahar eta orokor bati jarraiki paratua. Haren gerizpean elkartzen ziren arbasoak erabakiak hartzeko.




Herri gunea.



Udaletxea.



San Mikel Goiaingeruaren Parrokia eta artea.


Altzagarateko Andre Mariaren Ermita.

ARAMA

1399ko apirilaren 8ko herritartze-gutunean (liburu honetako lehen kapituluan ageri dena) egiazta daiteke data horretan herritartu zela Arama Villafrancarekin, gutun horretan aipatzen diren gainerako herriekin batera.

1615eko otsailaren 13an, Erret Ogasunaren diru-kutxa urritasunean zegoela baliatuz eta 5.445 erreal ordaindu ondotik, hiribildu-titulua erdietsi zuen.

Estatu berri horrekin Arama Oria ibaiaren Batasunean sartu zen Altzaga, Gaintza, Itsasondo, Legorreta eta Zaldibiarekin batera. Ahalordedun batek ordezkatzen zituen Probintziako Batzar Nagusi eta Partikularretan sei hiribilduak mankomunitate modura.


1682an Villafrancara atxiki zen berriro mozkin gehiago atera nahirik. XIX. mendean, ordea, Oria ibaiaren Batasunera itzuli zen eta herriko parrokia, San Martin de Tours, zen berriro ere Batasunaren topagune. Batasuna 1845ean desegin zen eta Arama berezko udaletxea zuen hiribildu bilakatu zen.

Bozue Txiki izeneko batasuneko kide ere bada, Enirio-Aralar inguruko mendiak ustiatzeko.


San Martin de Tours parrokia ermita zahar bat kokatzen zen lekuan dago, pixkanaka eraberritu eta handitu ostean, egun duen itxura hartu arte. Parrokian Ama Birjinaren tailua dago ikusgai. Hori da, hain zuzen, ermita zaharretik geratzen den adierazgarri bakarra.

Bertan 1874an Leaburun jaiotako Inocencio Munita Arizmendi jauna egon zen parroko gisa. Araman idatzi zuen *Gure Mendi ta Oianak* liburu ezaguna. Behinola irakurri nuenez, liburu horrek gure baserri guztien deboziozko liburua beharko luke izan, izan ere, bertan argi eta erraz erakusten dira zuhaitzak ematen dituen onurak eta, era berean, espezie bakoitza landatu eta zaintzeko jarraitu beharreko urratsak azaltzen dira: pagoa, haritza, gaztainondoa, intxaurrondoa, lizarra, artea, pinua, etab. Inocencio jauna 1958n urtean zendu zen Araman.


Landa-inguruneko beste hainbat herrixketan gertatu bezala, azken bi hamarkadetan Aramako biztanleriak gora egin du; izan ere inguruko herrietako jendea bertara bizitzera joan da eta, ondorioz, familiabakarreko etxeak eraiki dituzte.




Herri gunea.



Udaletxea.



Tourseko San Martinen Parrokia.



Ibaresko zubia eta errota.

ATAUN

Ataun Villafrancaren baitan egon zen 1399-1615 bitartean, beste hainbat herri bezala. Emantzipazioa eta hiribildu izendapena lortzeko ere haziendari kopuru handia ordaindu behar izan zion, hain zuzen 83.685 erreal, izan ere, lur asko zituenez, baserri eta biztanle ugari zituen.

Probintziako udalerri zabalenetako bat izateaz gain, oso luzea ere bada. Bere baserriak hamar kilometroko luzeran sakabanatzen dira.

Hiru auzo nagusi ditu: San Martin (bertan dago udaletxea), San Gregorio eta Aia. Horiez gain, beste auzo txikiago batzuk ere baditu.

Udalerriak Aralar mendikatearen Gipuzkoako aldearen zati handi batekin egiten du muga. Bertako larreetara eraman izan dituzte artzain askok beren aziendak. Artzaintzak oraindik bizirik dirau inguru honetan.

Are, udal-barrutiaren barnean mendiko artzaintza oso ohikoa izan da. Horren erakusle dira udalerrian zehar sakabanaturik dauden dolmen ugariak.

Erlijiozko tenpluei dagokienez, San Martin de Tours parrokia da handiena, auzoari izena ematen diona. Gauza bera gertatzen da San Gregorio Magno parrokiarekin, auzoan bertan kokatua. Hirugarrena Santa Isabel parrokia da, Aia auzoan dagoena.

Herrian beren eginahalean nabarmendu ziren pertsonaia ospetsuak jaio ziren. Garrantzitsutzat jotzen ditudan hirurak aipatuko ditut:

Miguel Imaz, eraikitzailea. Berak amaitu zuen Donostiako Kursaaleko zubia eta itsasoari lurra hartzea ahalbidetu zuen murrua egin zuen. Horrela, 1925ean hiriak kale bat eskaini zion Gros auzoan.

Juan Arin, apaiza eta etnografia eta historia ikerlaria, batez ere, Ataun herriarekin lotuta. Hainbat liburu idatzi zituen.

Jose Miguel de Barandiaran, apaiza, ikerlaria eta ikerlarien maisu arkeologia, antropologia eta etnografia arloetan. Bere obrak hamar mila orrialde baino gehiago ditu, horietatik 9.700 bere Obra Osoetan ikus daitezke. Horrez gain, bizitza luzean zehar (101 urterekin zendu baitzen) asko eta asko izan ziren emandako eskola eta hitzaldiak. Bizi zela, Euskal Herriko gizon garrantzitsuena izan zen.




Herri gunea.



Udaletxea.




Tourseko San Martinen Parrokia.




Zubikoeta Jauregia.




Zubikoeta jauregiko armarria.




Kalbario Santuaren Ermita.



Andresenea baserria.




Auzmendi baserria.




Baztarrika baserria.




Baztarrika baserriko armarria.




Bidearte baserria.




Durmategi, Barberonea eta Txataiñene baserriak.




Errementari baserria.




Errota kale.




Errota kale eta Upele.




Intxaustiberri baserria.




Lazkanotegi baserria.




Paskiñenea baserria.




Santiagoenea baserria.



Ola Errota.




Errotako errotarria.




Errotapeko turtukoiak.



Errotatxo.




Aldaparoa eta Zerrategia.



San Gregorio auzoko gunea.




San Gregorio Handiaren Parrokia.




Barandiaran Museoa.




Joxemiel Barandiaran Jauna Apaiz eta Jakintsua.




Perunezarra baserria, On Joxemielen jaiotetxea.




Sara etxea. On Joxemielen eta Pilarren bizilekua.




Arin baserria.




Zelabear dorretxea.



Andre Mariaren Ikustaldiaren Parrokia. Aia auzoa.



Aiako errota.



Aiako errota txikia.

EZKIO

Ezkio Villarreal de Urrechuarekin herritarturiko herri gisa ageri zen 1385ean. Baina hogei urte beranduago Segurarekin herritartu zen, hark lehenengoaren aurka ezarritako auzia irabazi ostean.

Horrela mantendu zen berrehun urte baino gehiagoan. Ondoren Areriako Alkatetza Nagusiaren baitan geratu zen.

1661ean hiribildu izatea lortu zuen, berezko udaletxea izan eta bertako alkatea izendatzeko eskumenarekin.

1965etik aurrera udaletxe bakarra osatzen du Itsasoko udalerriarekin batera. Udaletxe berria Anduaga auzoan kokatzen da, Beasaindik Zumarragara doan errepidearen ertzean.

Hain zuzen, Anduagako auzoan izandako gertakari batzuen ondorioz Ezkioga izena hedatu zen, aurretiaz zuen izena.

1931-1933 bitartean, jende andana batzen hasi zen bertako muino txiki batean, izan ere, albiste baten arabera, gune horretan Ama Birjina agertu zen hainbat pertsonen aurrean. Jende asko eta asko bertaratu zen, eliza katolikoak bertan egiten ziren ekintzak kondenatu zituen arte.

Herrigunean daude San Migel parrokia, udaletxe eta ostatu zaharraren eraikina eta egun eraitsita dagoen gurutzadura bat, Apaiztegi baserriaren alboan zegoena, Ormaiztegitik zetorren bide zaharretik herrira sartuz.


Ezkioko udalbarrutian bada beste gurutzadura bat ere. Duela lau urtera arte, Beasaindik Zumarragara doan errepidetik hurbil zegoen, Sagastizabaleko errotaren alboan. Baina, errepidearen beste aldera pasa zuten eta bertan ikus daiteke gaur egun.

Ezkion maiatzaren 8an ospatzen dira herriko jaiak, Gelasio Aita Santuak bizitako San Migelen Agerpena oroitzeko.

Anduaga auzoan Santa Luzia dago eta garai feudaleko urkamendi bat. Urkamendi hori kamioi batek jo eta eraitsi egin zuen eta denbora batez lekutik kenduta egon ostean, 1990eko urriaren 26an bertan kokatu zuten berriro, konpondu ondoren.




Herri gunea.




Udaletxe zaharra.




Ezkio-Itsasoren orain arteko Udaletxea.




San Mikel Goiaingeruaren Parrokia.



Santa Luzia Eliza Anduaga auzoan.



Santa Marina Ermita.



Igartubeiti baserria.

GABIRIA

Horren idatzizko frogarik ez badago ere, Gabiria Segurarekin 1384. urtean herritartu zela uste da, eskualdeko beste herri batzuen kasuan bezalaxe.

Baina hala izatekotan, denbora laburreko kontua izango zen, izan ere, XV. mendean Areriako Alkatetza Nagusiko kide gisa agertzen da. 1461. urtean, ordea, handik askatu zen hiribildu izendapena eskuratu zuenean Madrilen izapideak egin ostean. Hala, berezko jurisdikzio zibil eta kriminala baitaratu zituen.

Beranduago, Argisaoko Santa Krutzen Batasuneko kide izan zen Ezkio eta Zumarragarekin batera, 1766. urtean bertako kide izateari utzi zion arte. Ordutik modu independentean gobernatzen du.

Aurrerago zehaztasun gehiagoz ikusiko ditugu herriguneko bi erakin, udaletxea, parrokia, ostatua eta eskola hartzen dituztenak.

Herriguneaz eta mendi-mazeletan sakabanatzen diren baserriez gain, Gabiriak bi auzo berezitu ditu, hain zuzen, Aztiria eta Alegi.

Lehenengoa Aizeleku eta Aizpuru mendien artean dagoen mendatetxoan dago, Zeraindik Legazpira doan errepideak zeharkatzen duena. Bertan dago Santa Marinako ermita.


Bigarrena, Ormaiztegitik Zumarragara doan errepidearen alboan dago eta Itsasoren baitakoa ere bada, izan ere, Santa Luzia errekak banatzen ditu auzo horretako lurrak Itsaso eta Gabiria artean. Auzo horretan, gainera, Ormaiztegiri dagozkion baserriak daude.

Gabiriako lurretan jaiotzen da Eztanda erreka, izenak adierazten duenez “eztanda” esan nahi duena. Lurreko zulo batetik burrustan jaiotzen da eta hortik datorkio izena.

Gabiriako parrokia Andre Mariaren Jasokundeari eskainia dago eta herriko jaiak abuztuaren 15ean eta 16an opatzen dira, parrokiaren eta San Rokeren izenean.

Alegi auzoan dagoen Armandegi baserriaren aurrean garai feudaleko urkamendia dago, Gipuzkoan gaur egun ondoen mantentzen dena.

Hareharrizkoa da eta, oinarriko bi mailez gain, 60 zentimetroko diametroa eta 255 zentimetroko altuera duen fuste bat du. Fustearen gainean exekuziorako lau besoak finkatzen dira, irudizko animalien buruz hornituak. Beso horien gainetik kono-enbor formako tontorra dago.




Udaletxea.



Ostatuzar.




Andre Maria Zeruratuaren Parrokia.



Santa Marinaren Ermita. Aztiria auzoa.



Armandegi baserria eta Urkamendia. Alegi auzoa.




Armandegiko Urkamendia


Urkamendi honi buruz lehen esan direnaz gain, bere fustearen laugarren danborrean, harmailatik 133 zentimetrotara, 27 cm altu eta 15 zabal dituen hutsune bat dago.

Hutsune hau, bertan gaizkileen aurpegiak sartu eta kanpoan gelditzen ziren belarrien puntak mozteko zen. Honela bere bizi guztirako gaizkile bezala gelditzen ziren, "Belarrimotzak".

Urkamendi honen altuera osoak 3,85 m ditu eta, gainean oraindik burdinazko gurutze bat dauka. Beharbada gurutze honek salbatuko zuen Kadizeko gorteak, 1812ko martxoaren 19an onetsi zuen konstituzioaren desegiteko agindutik.



Eguzkitza baserria.



Madariaga barrena baserria.

GAINTZA

Gaintza Villafranca de Oriarekin herritartu zen 1399ko apirilaren 8an beste herri batzuk bezalaxe. Egoera horretan mantendu zen 1615. urtean hiribildu-titulua eskuratu zuen arte, Erret Ogasunari 5.032 pezeta ordaindu ostean.

Urte hartan, bat egin zuen aske geratu eta Oria ibaiaren Batasuna osatu zuten herriekin (Altzaga, Arama, Legorreta eta Zaldibia). Horrela, Probintziako Batzar Nagusi eta Partikularretara ahalordedun bat igortzeko kostua guztien artean ordain zezaketen, izan ere, han eskubide osoko eserlekua zuten.

Batasun hori 1845. urtean desegin zen, berrehun eta hogeita hamar urte ondotik. Ordutik udalerri independente da.

Herriko parrokia San Mikel Goiaingeruaren omenezkoa da eta XVI. mendean eraiki zen, dorrea eta sakristia izan ezik, azken horiek mende bat beranduago eraiki baitziren, hastapeneko proiektuan agertu arren.

Parrokia hori eraiki zenean aurretiaz zegoen San Martin erabiltzeari utzi zitzaion. Azken hori ermita gisa geratu zen eta zutik dago oraindik muino estrategiko batean, herrigunetik apur bat aparte.


Herriko jaiak irailaren 29an ospatzen dira zaindari eliztarraren izenean.

Gaintzak ikuspegi pribilegiatu eta ederrak ditu, bere ostertzaren zirkunferentzia osoan. Eta Alzagarateko gainera iristen den ibilbide arin batean, 16 herrixka ikus daitezke.

Komunikazioei dagokienez, Zaldibiatik hasi eta Larraitz, Abaltzisketa, Orendain edota Amezketara doan errepidearekin lotura du Gaintzak. Eta baita beste errepidearekin ere, hots, Zaldibiatik Ordiziara doan errepidearekin, hortik autobidera sartzeko aukera dagoelarik.

Gaintzan jaio zen Juan de Ursularre eskultorea. Bera izan zen, XVII. mendean, Madrileko eskola barrokoaren hedatzaile nagusia Gipuzkoako erretaulan.


Berak egin zuen Beasaingo elizako erretaula nagusia 1670.ean halaber, bere jaioterriko elizaren bi albo ere berak eginak dira. Espainiako Gortean aritu zen lanean eta garai hartako hainbat obra utzi dizkigu.



Udaletxea.



San Mikel Goiaingeruaren Parrokia.



San Martinen Ermita.

IDIAZABAL

Idiazabal da bidaiariak Gipuzkoan sartu orduko ikusiko duen lehen herria Frantziara doan N-I errepidean barna Araba, Nafarroa edo Gaztelatik etorrita.

Bertako mendietan larre eta zuhaizti ederrak izateaz gain, ur edangarria ematen duten hainbat iturburu sortzen dira, ur gardenekoak nahiz sufretsu eta burdintsuak.

Aizkorriko mendikatearen ingurumarian artzaintzan ibili ziren Idiazabaleko seme ugari eta herriaren izena daraman gazta gustagarria egin zuten. Horri esker "*Idiazabal Gazta"* izendapena ematen zaie latxa ardiaren esne gordinez egindako gazta guztiei.

Urtean zehar asko eta asko dira gazta mota horren inguruan egiten diren lehiaketak. Horri esker, gure mugetatik kanpo ere oso produktu ezaguna da.

Idiazabalen euskal artzainaren ohorez egindako monumentua dago.

1384ko martxoan Segurarekin herritartu zen beste herri batzuekin batera. 1615eko otsailaren 4an lortu zuen hartatik askatu eta hiribildu izendapena eskuratzea, 70.795 erreal ordaindu ostean. Modu horretan, jurisdikzio-boteredun alkate izendatu zuten.

Oso antzinako ohitura bati jarraiki, Espiritu Santuaren Pazkoko hirugarren egunean, San Adrian mendateko ermitara urtero egiten den prozesioan, herriko alkateak Segura eta Zegamako kale nagusietan barna ibiltzen dira beren aginte-makila luzea hartuta. Aipatu mendatea hiru jurisdikzioen baitakoa da.


Idiazabalgo parrokia-eliza San Mikel Goiaingeruari eskainia da. Bertan portada nagusia nabarmendu behar da, erromaniko eta gotikoaren arteko trantsizioko obratzat jotzen dena. Ate-zangoak askotariko irudi geometrikoekin eta giza irudi oso eskematikoekin apainduak daude.

Herriko jaiak otsailaren 3an ospatzen dira, San Blas egunez.


1947az geroztik Ursuaran auzoa ere hartzen du udal-barrutiak, urte hartan askatu baitzen Seguratik. Auzoa San Barbara mendiaren hegal baten hondoan dago. Bertan dago Santa Engrazia eliza eta festak irailaren 29an egiten dira, San Migel egunez.




Herri gunea.




Udaletxea.



San Mikel Goiaingeruaren Parrokia.




Parrokiaren Portale Erromanikoa.




Parrokiako Bataioko Pontea.




Kurutzeta Ermita.




San Ignazioren Ermita.



Kalbarioko Kristo Gurutziltzatuaren Ermita.



Santa Isabelen Ermita.




Herriko Eskola.




Artzainaren monumentua.



Arimasagasti etxea.



Santa Engraziaren Eliza. Ursuaran auzoa.



Olea baserria.

ITSASO

Itsaso aipagai duen albiste zaharrena 1399koa da. Urte hartan Areriako Alkatetza Nagusiko kide zen Lazkao, Olaberria eta Arriaranekin batera.

1461eko martxoaren 12an Enrique IVak emandako pribilegioz, alkatetza horrek zazpi kide izan zituen Zumarraga, Gabiria eta Ezkio elkartu zirenean.

Areriako Alkatetza Nagusia desegin zenean, Itsasok udaletxe independentea eskuratu zuen, Arriaranen herritartasuna mantenduz. Dena den, azken horrek emantzipazioa lortu eta 1927an Beasaingo hiribildura atxiki zen.

1965etik aurrera Itsasok udaletxe bakarra osatzen du Ezkioko udalerriarekin batera. Bi udalerrien udaletxe berria Anduaga auzoko etxetzarrean kokatzen da, Ormaiztegitik Zumarragara doan errepidearen ertzean.

Itsasoko parrokia-eliza San Bartolomeri eskainitakoa da. Horrela, herriko jaiak abuztuaren 24an ospatzen dira, santuaren omenezko ospakizun eliztarra egiten den egunean.

Barnean erretaula nagusia nabarmentzen da, Juan de Lizarazuk egin zuena 1575ean jasotako enkarguz. Portada nagusia erromanikoa da.

Alegi auzoan, Ormaiztegitik Zumarragara doan errepidearen ertzean, Santa Maria Magdalena eliza dago. Uztailaren 22an ospatzen dira auzoko jaiak.

Itsasok bi ermita ditu. Bat San Lorenzori eskainia, Itsaso eta Ezkio arteko mendian. Ermita horretan meza egiten da abuztuaren 10ean.


Bestea Kizkitzakoa da, Itsaso eta Mandubia gainean dagoena. Bertako Ama Birjina aski gurtzen dute eskualdeko bizilagunek eta Gipuzkoako kostaldeko arrantzaleek. Irailaren 8an ospatzen da bere eguna eta eliztar ugari elkartzen da.

Itsason harri landuzko gurutze eder bat dago, hilerriaren erdian. Probintziako gurutze ederrenetakoa da. Antzinako gurutze-bideari dagokio. Hamabigarren egonaldian Jesus gurutzean hil zenekoa irudikatzen da eta, gurutze hori gainerakoak baino eder eta landuagoa izaten da.

Kanpoko hilerria eraikitzean, hara eraman zuten hilerrian nabarmendu eta hobeto manten zedin.




Udaletxe zaharra eta Ostatua.




San Bartolomeren Parrokia.



Santa Maria Magdalenaren Eliza. Alegi auzoa.



San Lorentzoren Ermita.



Kizkitzako Andre Mariaren Ermita.

ITSASONDO

Itsasondo ere, beste hainbat herriren moduan, Villafrancarekin herritartu zen 1399ko apirilaren 8an.

Felipe III.aren garaian, 1615ean, libre geratu zen eta berezko hiribildu-titulua eskuratu zuen, jurisdikzio zibil eta kriminalarekin. Horretarako, aurretik 25.025 erreal ordaindu zizkion Erret Ogasunari zituen 91 bizilagunengatik.

Urte hartan "Oria ibaiaren Batasuneko" kide zen Altzaga, Arama, Gaintza, Legorreta eta Zaldibiarekin batera. Modu horretan, Probintziako Batzar Nagusi eta Partikularretara ahalordedun bat igortzeko kostua guztien artean ordaintzen zuten. Batasun hori 1845ean desegin zen.

1967ko abuztuaren 19tik udaletxe bakarra osatu zuen Altzagako udalerriarekin, azken horrek 1966ko otsailaren 5ean egindako eskaria onartu ostean.

Batasun horrek 1990eko hastapenera arte iraun zuen. Orduan desegin eta bakoitzak bere udaletxe independentea du.

Bozue Txiki izeneko batasuneko kide ere bada, Aralar mendikateko mendi eta larreak ustiatzeko.

XX. mendeko lehen bi herenetan Itsasondon garrantzia handia izan zuen arbel-lauzen erauzketak eta lanketak. Hiru arbel-etxe izatera iritsi ziren eta oraindik haien galeriak ikus daitezke. Eta baita material horren gainerako zabortegiak ere.


Arbelezko estalkiak dituzten etxeak ikus daitezke, ohiko teilazkoen ordez.

Parrokia-eliza herriko etxeak dauden gunetik gora dago eta Andre Maria Jasokundeari eskainia dago. Hori dela eta, herriko jaiak abuztuaren 15ean ospatzen dira.


Bertan San Gregorioren tailu bat dago, estilo errenazentista duena, Anchetaren eskolakoa, Isasagako dorretxeko kaperatik hartua. Hain zuzen, dorretxe horrek ematen dio izena herriari.

Ordiziarekin muga egiten duen tokian bertan San Juan de Letran ermita dago, 1582an Done Jakue bideko gaixo eta erromesak hartzeko ospitale izateko eraiki zena.

Urkia auzoan beste ermita bat dago, Santa Kruzi eskainia. Maiatzaren 3an erromeria egiten zen bertan.




Udaletxea.



Andre Maria Zeruratuaren Parrokia.



Letrango San Joanen Ermita.



Gurutze Santuaren Ermita. Urkia auzoa.

LAZKAO

Feudalismoa indartsu zen garaian, Lazkaoko Jauntxoek kontrolatzen zuten Areriako Alkatetza Nagusia, Olaberria, Ezkio, Zumarraga, Gabiria eta Lazkaoko parrokiak baitaratzen zituena. 1461. urtean, ordea, herri horiei administrazio-ahalmena gabetu zitzaien Enrique IV.ak emandako sententziaz.

Parrokia-elizak, Lazcanotarren Jauregiak, Bernardatarren komentuak eta Beneditarren komentuak osatutako multzoa Gipuzkoako ondare historikoaren gune bikainenetako bat da.

Eliza XVI. eta XVII. mendeen artean eraiki zen eta San Mikel Goiaingeruari eskainia dago. Horrenbestez, irailaren 29an ospakizuna egiten da. Haatik, herriko jaiak apirilaren 28an ospatzen ziren, San Prudentzio zaindariaren egunez.

Beneditarren Monasterioa 1640an sortu zuen Maria de Lazkano andreak, Karmeldar Oinutsek okupatzeko, Santa Teresa izena hartu zuelarik. Frantzian beneditarren ordena kanporatu zutenean, 1916an, Belloceko zenbait fraidek Idiazabalera jo zuten eta, handik gutxira, Lazkaon finkatu ziren. Monasterio horretan, On Juan Jose Agirre fraidearen bilduma-lan bikainari esker, argitalpen politiko eta sozialei dagokienez probintzian dagoen artxibategi onena kokatzen da, inkunable ugari barneratzen dituen liburutegi garrantzitsua izateaz gain.


Bernardatarren Zistertar Monasterioak Santa Ana izena du. Bestearen alboan dago eta hau ere Maria de Lazcanori zor zaio, On Antonio de Oquendo almirante donostiarrarekin ezkondu zena. Kutxa batean gordetzen dira fundatzailearen gorpuzkiak monasterioaren elizan.

Jauregia, gaur egun, Infanterriko Dukearena izenarekin ezagutzen dena, Lazkaoko Jauntxoena da eta 1620-1640 bitartean eraiki zen. Tamaina handiko eraikina da, alboko gorputzak dorre itxurakoak dituelarik.

Izen bereko auzoan dago San Prudentzio ermita (Lazkaoko zaindaria), egun herriguneak inguratuta.


Lazkaomendi landa-auzoan dago San Joan Ante Portam Latinam ermita.

Zubierreka auzoan, Agauntza errekaren eta industrialdearen artean, San Joan Bataiatzailearen ermita dago.




Udaletxea.



Lazkao Txiki bertsolariaren monumentua.



San Mikel Goiaingeruaren Parrokia.




Beneditarren Monasterioa.




Beñatetarren Monasterio Zistertarra.




San Prudentzioren Ermita.




San Joan ante Portam Latinam Ermita.




San Joan Bataiatzailearen Ermita.



Infantadoko Dukearen Jauregia.



Jauregiaren aurrealdea.



Orobione etxea.

LEGAZPI

Aizkorriren hegalean dagoen burdinazko mineralari, Legazpiko harana zeharkatzen duen Urola ibaiaren emariari eta mendietan zeuden basoei esker, baldintza egokiak ematen ziren Goierriren mendebaldean dagoen udalerri horretan burdinolak finkatzeko. XII. eta XIII. mendeen artean 20 burdinola zenbatzen dira; XVI. mendean, ordea, zazpik baino ez zuten iraun.

1384an Legazpi Segurarekin herritartu zen, eskualdeko beste hainbat herrik egin bezala. Baina lotura horrek gutxi iraun zuen, izan ere, Segurak zerga batzuk ordaintzera derrigortzen zuen Legazpi eta honek uko egiten zion ordainketa horri Alfontso XI.ak 1338an onartutako Burdinolen Foruan anparatuta.

Batasunak 224 urte iraun zuen eta denbora horretan bidegabekeriak etengabekoak izan ziren. Horrela, askatzeko nahia indartu egin zen eta, azkenik, 1610ean lortu zuen Legazpik Seguratik deslotzea, azken horrek erabakiaren aurka gogor egin bazuen ere. Hori oso begi onez ikusi zuten Goierriko gainerako herriek, izan ere, nahimen bera zuten eta gertaera aurrekari gisa baliatu zuten goi-organismoetara jotzerakoan.

Emantzipazioaren ostean udaletxea eraiki eta parrokia berritu zuten.

Azken hori Jasokundearen Andre Mariari eskainia dago eta Pedro Carrera eta haren seme Martinek hartako gangen eta dorrearen eraikuntzan parte hartu zuten 1700 inguruan.

Udaletxeko eraikina ere, fatxada eder eta harmoniatsua duena, Carrera aita-semeek gauzatu zuten.

XX. mendearen lehen herenean Legazpik hazkunde demografiko handia izan zuen, On Patricio Etxeberriak sortutako metalurgia-fabrikaren babesean.

Legazpiko herriko jaiak maiatzaren 3an ospatzen dira Gurutze Santuaren Idorokundean. Halaber, irailaren 14an festa txikiago batzuk ospatzen dira, Gurutze Santuaren Gorapena ospatuz.

Telleriarte auzoan hiru ermita daude. Bat San Mikelena, Oñatira doan errepidearen ertzean santutxoa duena. San Joan ermita, auzoaren erdian. Eta Mirandaolako Gurutze Santuaren ermita, berriagoa.

Halaber, Brinkola auzoan San Agustin eliza dago XIX. mendearen amaieraz geroztik. Abuztuaren 28an ospatzen da haren omenezko festa.



Udaletxea.



Galdoseko edo Mendiarazko Gurutzea.



Andre Maria Zeruratuaren Parrokia.




Kanpandorrea.




Bikuña dorretxea.



Olaetxe dorretxea.



Elorregiko zubia eta dorretxea.




Mirandaolako Zeharrola eta Ermita.




Mirandaolako Gurutze Santuaren Ermita.



San Mikelen Ermita.



Telleriarteko San Joanen Ermita.



Brinkolako San Agustinen Eliza.

LEGORRETA

Legorretan dokumentaturik aurkitzen den lehen aipua 1399an Villafrancarekin herritartu zenekoa da, dokumentu horretan agertzen diren beste zazpi herriekin batera.

Eta beste haietan gertatu bezala, 1615eko otsailaren 4an Felipe III.ak hiribildutasuna onartu zion, aldez aurretik, Erret Ogasunari 2.700 dukat ordaindu ostean.

Urte bereko azaroan "Oria ibaiaren Batasun" izenekoan barneratu zen Altzaga, Arama, Gaintza, Itsasondo eta Zaldibiarekin batera. Modu horretan, Probintziako Batzar Nagusi eta Partikularretan ordezkatuko zituen prokuradore bat bat igortzeko kostua ordain zezaketen guztien artean. Batasun hori 1845ean desegin zen.

Herria Gaztelako errege bidearen alboetara hazi zen, Oria ibaia zeharkatzeko bi ibaien artean.

Herriaren erdian dago udaletxea, arkupeak eta balkoi jarraitua dituena, bidearen eskuineko ertzera so.

Udaletxearen parean, bidetik apur bat aparte, parrokia-tenplua dago, bi eraikinen artean herriko plaza osatzen delarik.

Parrokia-eliza San Salvadorri eskainitakoa da. Kanpoaldean kontrahorma sendoak ditu, murruak eusteko. Portada gotikoa du.


Legorretako herriko jaiak Jasokundearen egunez ospatzen dira. Era berean, Gorpuzti-egunean erromeria herrikoia egiten da herriko plazan. Bertan afaria egiten da etxe bakoitzetik ekarritako jakiekin.

Hiru ermita eta santutxoa ditu Legorretak. Berostegi auzoan Santa Marina ermita dago, barruan Idiazabalgo Felipe de Azurmendi eskultoreak XVIII. mendearen erdialdera egindako erretaula duena.

Oriar etxetik gertu (eta haren baitakoa izanik) Santa Ana ermita dago, XVI. mendekoa. Gaur egun arras kaltetua dago.

Herrigunearen iparraldeko muturrean, Torreauzo zubiaren sarbidean, Guadalupe ermita dago.


Itsasondotik gatozela herrigunearen sarreran Gurutze Santuaren santutxoa dago, Eraistea irudikatzen duten irudiz hornitua.




Udaletxea.




Salbatore Donearen Parrokia.




Ibarbia dorretxea.




Gurutze Santuaren Santutxoa.



Oriar Jauregia.



Santa Anaren Ermita.



Guadaluperen Ermita.



Santa Marinaren Ermita.

MUTILOA

Mutiloa ere Segurarekin herritartu zen herrietako bat izan zen. Elkartasun-itunez egin zuen 1384ko apirilaren 15ean.

Eta hala mantendu zen 1615eko otsailaren 4ra arte. Data horretan Felipe III.a erregeak berezko hiribildu-titulua onartu zion, botere zibil eta jurisdikzionalarekin, 26.542 errealen truke.

Ordezkaria Probintziako Batzar Nagusietara eramateak zekarren kostuari aurre egiteko hainbat herri elkartu egin ziren. Hala, Mutiloak "San Estebaneko Batasuna" osatu zuen 1617an Astigarreta, Gudugarreta, Ormaiztegi eta Zerainekin batera.

Urte batzuk geroago, 1637an, Zegama batu zen batasunera eta "Zegamako Batasun" izendapena hartu zuten, 1725. urtera arte. 1742an "Legazpiko Batasunean" parte hartu zuen eta 1825ean "Artamalastegi" izenekoan. Azken hori Zerain, Idiazabal eta Mutiloak osatzen zuten.

Hiribilduaren jarduera ekonomikoan, nekazaritza eta abeltzaintzaz gain, meatzaritza nabarmendu behar da Erdi Aroaz geroztik. Zerainekin batera, burdina-zainak zituen eta mineral horrekin hornitzen ziren zonaldeko burdinolak. Inguruko baserritarrak arduratzen ziren garraioaz.

Beranduago, meatze-trenbide txiki bat izan zuen minerala Ormaiztegiko geltokiraino eramateko. Han trenak hartzen zuen minerala.

Gaur egun, ibilbide hori bide turistikoa da eta txangozale ugari ibiltzen da bertatik.

Meatze-jarduera XX. mendearen bigarren herena hastearekin batera eten zen.

Parrokia-eliza San Migeli eskainia dago. Barnean Aldare Nagusiko erretaula nabarmentzen da, XVIII. mendearen erdialdean Felipe de Azurmendi Idiazabalgo eskultoreak eraiki zuena.

Elizarekin angelua osatuz udaletxea dago, eta beste eraikin interesgarri batzuekin batera herriko plaza osatzen dute. Herriko jaiak ekainaren 29an ospatzen dira, San Pedro egunez.

Herriaren gainaldean Lierniko ermita dago, serora batek zaintzen zuena. Tradizio luzeko eta Andre Mariarenganako debozio handiko santutegia da eta inguruko herrietako jendea bertaratzen da. Antzina, erromeria ezagunak egiten ziren, irailaren 8koa izanik ezagunena.


Lekua oso interesgarria denez, gaur egun, ostatu ugari eraiki dira inguruan.




Herri gunea.



Udaletxea.



San Mikel Goiaingeruaren Parrokia.



Lierniako Andre Mariaren Ermita.

OLABERRIA

Antzinako Zeba XII. mendean aipatzen da jadanik. Haatik, Oria ibaiaren ertzean, Iurre auzoan "Ola-berria" izeneko burdinola berria eraiki zenean haren izena hartu eta ordudanik horrela ezagutzen da.

Olaberria Areriako Alkatetza Nagusiko partaide izan zen Itsaso eta Lazkaorekin batera. Lazcanotarren leinuaren menpe zegoen udalerria eta haien aldetiko gehiegikeria ugari jasan behar izan zituzten biztanleek. 1460an Enrique IV Gaztelako erregeak autogobernurako eskumena eman zien herriei.

Lizentzia eskuratuta, Olaberria eta Lazkaok batuta jarraitzea adostu zuten, 1804. urtean banandu eta berezko udaletxea eratu zuen arte.

Olaberriako herrigunea Aranbeltz errekaren eta Oria ibaiaren artean dagoen malda leuneko mendi baten gainean lekutzen da.

Herrigunean udaletxea, San Joan Bataiatzaileari eskainitako parrokia-eliza, abade-etxea, bizpahiru baserri zahar, bi jatetxe eta berriki eraiki diren bi familiako eta familia bakarreko etxe ugari dago.

Herriko jaiak ekainaren 24an ospatzen dira, parrokiaren izeneko festetan.

Eliza Martin de Abaria hargin beasaindarrak eta haren familiako hainbat belaunaldik eraiki zuten. Eraikina 1690ean amaitu zen, gangak izan ezik, horiek 1726an amaitu baitziren.


Agerre baserriaren alboan Guretze Santuaren ermita dago.

Sustrai erreka izeneko errekarantz amiltzen den mendi-mazelan aldaketa handirik izan ez bada ere, Oria ibaira amiltzen den aldeak eraldaketa handia izan du XX. mendearen bigarren erditik aurrera.

Oria ibaiak zabaltzen duen haranaren hondoan Madrildik Frantziara doan errepide nagusia dago eta, haren bi alboetara, industria eta merkataritza-gune garrantzitsuak eraiki dira.

Lehen industria Jose Maria Aristrainek sortutako altzairu-fabrika izan zen. Gainera, bertan lan egiten zuten langileak hartzeko etxebizitzez beteriko auzune bat sortu zen inguruan.


Ingurune horretan industrialde bat sortu da, lantegiz, lantegi autonomoz, eta aurrez aipaturiko hipermerkatu eta bestez hornitua.




Udaletxea.




San Joan Bataiatzailearen Parrokia.




Amoskategi baserria.



Berdillari baserria.



Ojarbide baserria, erdia Olaberrikoa eta beste erdia Idiazabalgoa.



Gurutze Santuaren Ermita.

ORDIZIA

Ordiziaren ordez, Villafranca hiribildua finkatu zen. Azken horri Alfonso X.a Gaztelako erregeak pribilegio biribilduna eman zion 1268ko uztailaren 30ean.

Gipuzkoan beste hiribildu batzuk eratu ziren heinean, haietako prokuradoreak elkartu egin ziren batasun eta anaitasunak finkatzeko asmoz. 1387ko abuztuaren 18an Villafrancako jurisdikzioaren baitan batu ziren.

Berehala ohartu ziren eskualdeetako herri edo lekuak erakartzea komeni zela. Horrela, ordezkaritza eta indar handiagoa izango baitzuten probintzia mailan egiten ziren bilkuretan.

Hala, 1399ko apirilaren 8an Altzaga, Arama, Ataun, Beasain, Gaintza, Itsasondo, Legorreta, Zaldibia eta Lazkaoko hamar etxe Villafrancarekin herritartu ziren, hiribilduko Andre Maria elizan sinatutako elkartasun-itunez.

Lehen kapituluan aipatu denez, tirabirak izan ziren hiribilduaren eta herritarturiko herrien artean. Gainera, Erret Ogasuna diru premiaz zegoan. Modu horretan, 1615eko otsailaren 4an batasun hori desegin egin zen, eta Ordizia aurrez zuen egoeran geratu zen, bere lurren jurisdikzioaren jabe.

Parrokia-eliza herrigunearen erdian dago eta Andre Mariaren Jasokundeari eskainia dago. XVI. mendekoa da, dorrea 1781koa eta portikoa XIX. mendearen bigarren erdikoa.

Herriko jaiak uztailaren 26an ospatzen dira, Santa Ana egunez. Horrez gain, irailaren 8an landa giroko jaialdia ospatzen da.

Halaber, San Bartolomeri eskainitako ermita bat dago. Diotenez, lehen biztanleak finkatu zirenean hura izan zen lehen parrokia.


Joana erreginak 1512an astero, asteazkenez, azoka egiteko baimena eman zion. Hala, tarteka etenak izan baditu ere, 1885etik aurrera halaxe egiten da.

Herrian hainbat jauregi eta dorretxe daude, besteak beste, Zabala, Barrena eta Zabale.

Oiangu baserrian Andres de Urdaneta jaio zen 1508an. Denborarekin kosmografo ospetsua izan zen, izan ere, izarrak iparrorratz gisa hartuta eta bidean galdu gabe (beste kasu batzuetan gertatu zen moduan), itsasontziek Filipinetatik Mexikora jarraitu beharreko ibilbidea asmatu zuen.



Udaletxea.





Andre Maria Zeruratuaren Parrokia.



Frai Andres Urdanetaren monumentua.



Ibarbia etxearen balkoia.




Zabala Jauregia.




Barrena Jauregia.



Zabale dorretxea.



San Isidro Etxaldea.



San Bartolomeren Ermita.

ORMAIZTEGI

Ormaiztegi 1384ko martxoaren 22an Segurarekin herritartu ziren herrietako bat izan zen, Astigarreta, Gudugarreta, Idiazabal, Legazpi, Mutiloa, Zegama, Zerain eta Gabiria eta Itsasoko etxe batzuekin batera.

Batasun horretan izan zen 1615. urtera arte. Urte hartan berezko hiribildu izendapena eskuratu zuen, jurisdikzio zibil eta kriminalaren jabe izango zen alkatetza izendatzeko eskumenez.

Dena den, ordezkaria Probintziako Batzar Nagusietara bidaltzeko gastuei aurre egin ahal izateko, 1617an "San Estebaneko Batasunean" sartu zen Astigarreta, Gudugarreta, Mutiloa eta Zerainekin batera. 1637an Zegama sartu zen ermandade horretan eta "Zegamako Batasuna" izendapena hartu zuen, 1679ra arte iraun zuena.

1679-1795 bitartean Areriako Alkatetza Nagusiko partaide izan zen, ondoren udaletxe independente gisa geratu zelarik.

Herriko parrokia-eliza San Andresi eskainia dago. Hori dela eta, azaroaren 30ean ospatzen dira herriko jaiak.


Azpimarragarria da bataiarriaren antzinatasuna, izan ere, eliza baino zaharragoa da, eta erlijiozko sinbologiadun irudiz apaindurik dago.

Hilerrian kapera eraiki zen 1898an, Karmengo Andre Mariaren izenean.

XIX. mendearen erdialdera Ormaiztegin ur sufretsuen bainu-etxe ospetsua zabalik zegoen, eta 1872an eraikin berria eraiki zen, urtean 500 gaixo hartzen zituena. Hainbestekoa izan zen haren ospea, ezen Espainiako zarzuela entzutetsuenetako batean aipatzen baitzen.

1860-1864 artean eraikitako Norteko trenbideak garrantzi handia izan zuen Ormaiztegin. Batetik, herrian finkatu zirelako proiektuaren obrak zuzentzeaz arduratzen ziren langile kualifikatu gehienak. Eta beste alde batetik, burdinazko biaduktua eraiki zelako, 289 metroko luzera duena eta lau zutabez sostengatzen dena. Lavaley ingeniariak diseinatu zuen. Horrek sona eman zion hiribilduari.


Iriarte baserrian jaio zen 1788an Zumalakarregi Jeneral ezaguna, lehen bi karlistadetako heroia. Iriarte erdikoa etxean finkatzen da haren izena daraman museoa.




Herri gunea zubipean.




Udaletxea.




San Andres Apostoluaren Parrokia.



Kanpandorrea.




Bataioko Pontea.




Karmengo Andre Mariaren Ermita.



Iriarte erdikoa. Zumalakarregiren Museoa.



Lizarralde baserria.



Otsoategi abizenak etxe honetan du jatorria.

SEGURA

Segura izan zen Gaztelako erregeak Frantziarako bidean sortu zuen hiribilduetako bat, bere bidaietan eta bere senide eta gortesauek egindakoetan aterpetxe seguruak izan zitzaten.

1256an Alfonso X Jakitunak harresi-barruko hiribildu bat sortu nahi izan zuen San Andres ermitaren inguruan zegoen kokaleku txiki batean. Bertan finkatu ziren familia garrantzitsu zenbait eta egun Seguran ikusgai dauden jauregi eta dorretxeak eraiki zituzten, nahiz eta 1420., 1492. eta 1645. urteetan izandako suteetan horietako zenbait erre.

Segura gune garrantzitsua izan zen merkatari eta oinezkoentzat, izan ere, San Adrian tuneletik jaisten zen errege bidearen erdian zegoen.

Probintziako Batzar Nagusietan zuen garrantzia areagotze aldera, 1384an Astigarreta, Ezkio, Gabiria, Gudugarreta, Idiazabal, Legazpi, Mutiloa, Ormaiztegi, Zegama eta Zerain herritartzea lortu zuen.

Udalerriek jarritako diru-zamak zirela eta, herri horiek erregeak hiribildu izendatzea lortu zuten. Legazpi izan zen Seguratik banantzen lehena 1610ean, eta 1615ean gainerakoak.

1760 inguruan, erregeak autoentzat Errege Bidea sustatu zuen Madril eta Irun artean. Orduan Batzar Nagusietan Leintzeko haranaren alde egin zuten eta Segura komertzio-ardatz nagusienetatik at geratu zen.


Trenbidea Zumarragatik barna eraikitzeak are gehiago isolatu zuen herria, eta Segura bigarren maila batean geratu zen. Horri burdinolen krisia gaineratu behar zitzaion. Horrenbestez, landa-herrien multzoan kokatu zen Segura.

Baina Segurako herritarrek egoera berriari aurre egiten asmatu zuten, hiribilduaren egitura gaurdaino aldagaitz mantenduz. Horri esker, gaur egun luxuzko erdi aroko hiribildua ikus dezakegu Goierrin eta Gipuzkoan.

Andre Maria Jasokundearen parrokia-eliza gotiko-euskaldunaren prototipoa da. Handitzeko obrak XVI. mendekoak dira eta estilo churriguereskoa duen erretaula XVIII. mendekoa da.

Herriko jaiak ekainaren 24arekin hasten dira, San Joan egunez.


Erlijiozko eraikinei dagokienez aipagarri dira Sorkundetarren Komentua (XVII. mendea); San Andres, Santa Engrazia, San Sebastian eta Santa Barbara ermitak; eta Kristoren santutxoa.



Segurak XIX.an mendean zuen itxura.




Lardizabal Jauregia. Udaletxea.




Andre Maria Zeruratuaren Parrokia.



Parrokiaren sarrerako atea.



Gurutze Santuaren Santutxoa.




Sorkundearen edo Santa Isabelen Konbentua.



San Andresen Ermita.




Santa Engraziaren Ermita.




San Sebastianen Ermita.



Santa Barbararen Ermita.



Gebaratarren jatorriko etxea.



Ardixarra etxea.



Txakarra etxea.



Antokale etxea.

URRETXU

Urretxu hiribildua da 1383az geroztik, Gaztelako Joan I.a erregeak titulu hori onartu zionetik, garai hartan Villarreal izenarekin. Gainera, Vitoriako Forua onartu zion, bizilagunen askatasunak eta bertako mendi eta larreen ustiapena aitortzekoa, soldadutza egitetik at utziaz. Horretarako, erregeari urtean bi soldata eman behar zitzaizkion etxe bakoitzeko.

Urretxuko parrokia-eliza XVI. mendekoa da eta garai hartako hainbat erretaula mantentzen ditu. Dena den, erretaula nagusia, San Martin de Toursi eskainia 1861ean eraitsi egin behar izan zen absidearekin batera, Azkoitiko errepidea igaro zedin. Dorrea XVIII. mendean eraiki zen.

Deigarriak dira egurrez egindako gangak, zutabe biribil sendoetan sostengatzen direnak eta tenpluaren hiru nabeak banatzen dituztenak.

Urretxun irailaren 22an ospatzen dira herriko jaiak, Santa Anastasiari omen eginez.

Abenduaren 13an, Santa Luzia egunez, azoka handi bat ospatzen da azienda eta askotariko baserriko produktuekin. Horrez gain, Gabonetako festak hurbil daudenez, eztigarri ugari izaten da.


Santa Barbara ermita Irimo mendiaren hegalean lekutzen da. Ekainaren 24an, San Joan egunez, erromeria egiten da.

Inguruan baserri ugari ditu eta baita Ipiñarrieta jauregia ere, lau angeluko eraikin sendoa, erdian dorre karratua duena. Cristobal Ipiñarrietak agindu zuen haren eraikuntza, Felipe III.a erregearen idazkari pribatua zenak.

1820an Jose Maria Iparragirre koblakaria jaio zen Urretxun, gaur egun, kantautore gisa ezagutzen dena. Gitarra eskuan hainbat herrialde zeharkatu zituen kantuan.

Kutsu aberkoia duten euskal kantak konposatu zituen. Horien artean “Gernikako arbola”, “Nere amak baleki” edo “Hara nun diran” dira aipagarrienak, hala Madrileko kafetegietan nola Euskal Herriko plazetan kantatzen zituenak.


1881ean hil zen Itsasoko Zozabarro baserrian, familiatik urrun. 1890ean Urretxuko plazaren erdian dagoen monumentua inauguratu zen, Carrarako marmolez egina. Monumentua herritarren artean ordaindu zuten.




Udaletxea.




Ipiñarrieta jauregia.




Tourseko San Martinen Parrokia.



Santa Barbararen Ermita.



Joxemari Iparragirreren monumentua.



Zabaleta baserria.

ZALDIBIA

14. eta 17. orrialdeetan ikusi ahal izan denez, Zaldibia 1399ko apirilaren 8an sinatutako dokumentu batekin herritartu zen Villafrancarekin, haren baitako agintaritza zibil eta kriminalean egonik, baina bere lurrak eta administrazioa mantenduz.

Hala iraun zuen 1615eko otsailaren 13an Ogasunari 3.575 dukat ordaindu ostean, Felipe III.a erregeak hiribildu-titulua onartu zion arte.

Urte hartan, Probintziako Batzar Nagusi eta Partikularretara ordezkaria bidaltzeak zekarren gastua errazago ordaintzeko Oria ibaiaren Batasunean sartu zen, Altzaga, Arama, Gaintza, Itsasondo eta Legorretarekin batera.

XVII. mendearen amaieran eta XVIII.aren hasieran batasuna utzi eta Villafrancara atxiki zen eta ehun urtez egoera horretan mantendu zen.

1818an Ataun eta Beasainekin elkartu zen, Atazalbeako Batasuna osatuz eta 1852. urtera arte izan zen hartako kide.

Ikergai dugun epealdian bertako biztanleak landa-jardunean aritzeaz gain, artzaintzak ere garrantzia handia izan zuen. Hala, Aralar mendian artalde asko zituzten.

Bertako parrokia-elizak, Santa Fe izenekoak, gurutze latindarreko oinplanoa du. XVI. mendean eraiki zen eta barnean bataiarri interesgarri bat du, irudi geometrikoz apaindua. Herriko jaiak urriaren 6an ospatzen dira.

Zaldibiatik Larraitzera doan errepidetik hurbil Saturdi (San Saturnino) ermita dago. Bertan erromeria egiten da Pazko astelehenean. Gipuzkoan dokumentatutako lehen ermitetako bat da. Hala, XII. mendeko dokumentu batean jadanik badago haren aipurik. Eraikuntza ederra izateaz gain, paisaia itzelean kokatzen da, Txindokiren oinetan. Horrela, argazkizale ugari hurbiltzen da argazkia ateratzera.

Zaldibian On Juan Ignacio Iztueta jaio zen 1767an, euskal idazle trebea. Abesti ugari sortu zituen, horien artean "Kontxesiri" izenekoa nabarmentzen da, bigarren emazteari eskainia.

Gainera, euskal dantzak sakonki ezagutzen zituen eta haien inguruko liburu oso interesgarria kaleratu zuen.


Duela hainbat urtetik, udazkenean, "Artzai eguna" ospatzen da. Egun horretan artzaintzarekin lotutako produktu ugari eros daitezke.




Zubia eta Herri gunea.




Kalbarioko gurutzea.




Udaletxea.



Fede Donearen Parrokia.




San Saturninoren Ermita.



Agarreurreta baserria.



Errementaria.



Kanpandegi etxea.

ZEGAMA

Zegama Aizkorri mendiaren ekialdeko hegalean dago eta, horrenbestez, mendi-mazela horretako errekasto ugaritik datorren urarekin sortzen den Oria ibaiaren buruan. Goierriko pertsona heldu askoren esanetan, "Eskaratzeko iturria" izeneko iturria da ibai horren sorreran ur gehien ematen duena. Mendizaleek aski ezagutzen duten iturria da, izan ere, San Adrianeko haitzuloa zeharkatu bezain pronto gorantz egiten duen galtzadaren aldamenean dago.

Araba eta Gaztelatik zetozen oinezkoek Gipuzkoan topatzen zuten lehen herria da Zegama. Oinezko horiek aipatu haitzuloa zeharkatu behar zuten Frantziarantz jotzeko XVIII. mendearen bigarren erdira bitartean.

Parrokia-eliza San Martin de Toursi eskainia dago. Egun duen itxura XV. eta XVI. mendeetan egindako eraikinaren eta XVIII. mendera bitartean izandako handitzeen ondorio da. Barnean Aldare Nagusiko erretaula, Zumalacarreguiren mausoleoa eta bataiarria nabarmentzen dira. Halaber, barnean, Aizkorri mendiaren tontorrean dagoen Gurutze Santuaren ermitako gurutze erromanikoa gordetzen da.

Zegamak abuztuaren 24an ospatzen ditu herriko jaiak, San Bartolome omenduz, zeinaren izenean ermita bat baitago, antzina parrokia izandakoa.

Beste hainbat ermita ere badaude herrian: Otzaurte, San Adrian, Sancti Espiritus, Gurutze Santuarena, Nieveseko Andre Mariaren ermita eta San Pedro ermita. Azken horretan erromatarren garaiko hileta-oroitarri bat dago.

Inguruko gainerako herriak bezala, 1384an Segurarekin herritartu zen. Egoera horretan mantendu zen 1615ean koroak hiribildu-titulua onartu zion arte, aldez aurretik erregetzari 2.910.938 marabedi ordaindu ostean.

Egungo udaletxeak arkupe ikusgarria du eta XIX. mendearen hastapenean eraiki zen.


Tomas Zumalacarregui jeneral karlistak Zegamara eramatea nahi izan zuen Bilboko setioan zauritua izan ostean, Jose Francisco Telleria "Petrikillo" ospetsuak arta zezan. Baina, hark ezin izan zuen ezer egin sendatzeko, izan ere, zauria jadanik gangrenak hartua zuen. 1835ean hil zen 47 urterekin eta Zegamak monumentua eskaini zion 1866ko abenduaren 23an.




Herri gunea.



Aldare-harri erromatarra.




Udaletxea.




San Adriango Ermita.




Tourseko San Martinen Parrokia.



San Bartolomeren Ermita.




San Pedroren Ermita.




Gurutze Santuaren Ermita.




Edurtzako Andre Mariaren Ermita.




Otsaurteko Ermita.




Sancti Espiritus Ermita.




Aizkorriko Gurutze Santuaren Ermita.



Juan Telleria jaio zeneko etxea.



Tomas Zumalakarregi hil zeneko etxea.



San Adriango tunela.

ZERAIN

Zerain deigarria da ikusi orduko, oso ederra da, gain batean kokatua Seguraren mendebaldera, nahiz eta berez Antolar mendiaren hegalak egiten duen zelaigune bat den.

Herriko Jasokundearen Andre Maria elizan 1384ko martxoaren 20an sinatutako gutun baten bidez Segurako hiribilduarekin herritartu zen.

Eta egoera horretan mantendu zen 1615ean hiribildu-izendapena eskuratu zuen arte, ogasunari 31.364 errealeko kopuru azpimarragarria ordaindu ostean.

Zeraingo udaletxeak antzinako egitura mantentzen du, udaletxeaz gain ostatua eta kartzela ere bere baitan dituela. Hori guztiori, lau angeluko eraikin irmo batean.

Herriko parrokia-eliza Jasokundearen Andre Mariari eskainia dago eta, horregatik, herriko jaiak abuztuaren 15ean ospatzen dira, hurrengo egunean San Roke ospatzen delarik.

Udalbarrutian dago San Blas ermita, zeinari eztarriko gaitzak sendatzeko ahalmena aitortzen zaion. Hori dela eta, ermita horretan otsailaren 3an ospatzen den mezara karameluak eta beste gozoki batzuk eramaten dira bedeinkatzera.

XIV. mendearen aurretik jadanik ospetsuak ziren burdinazko meatzeak, inguruan zeuden herrietako burdinolak hornitzekoak. Meatze horiek tokiko enpresek ustiatu zituzten, Ingalaterra edota Alemaniako beste enpresa batzuekin batera. Denbora-tarte labur batzuetan jardunik gabe egon baziren ere, XX. mendearen erdialdera arte martxan egon ziren eta minerala Frantziara ere esportatu zuten.

Nabarmentzekoa da Zerainek jarduera horren inguruan egin duen museo-multzoa ustiapen-gunean. Etnografia ere adierazgarria da.

Zerain da herritarrek bertako landa-jardunak eta meatzaritza balioesteko egindako ahaleginaren eredua. Halaber, bertako kirol kuttuna, bolo-jokoa, ere goretsi dute herritarrek, izan ere, hainbat herritarrek txapelketa entzutetsuak irabazi dituzte.

Herrian dago bere garaian probintzia osoan zegoen kartzela bakarra. 1711n eraikitako kartzelak orduko itxura mantentzen du eta garai hartan ordena-indarrak hara eramaten zituzten gaizkileak kondena bete beharreko espetxe ezberdinetara eraman aurretik.




Herri gunea.




Plazaldea elurretan.




Udaletxea.




Jauregia.




Zeraingo Armarria.


Eguzkilargi.



Jauregiko harriak.



Andre Maria Zeruratuaren Parrokia.




Parrokiako Bataioko Pontea.




San Blas Ermita.



Kultur etxea.




Ostatua.




Plazaldea.




Mantxola txiki. Goia margolariaren jatorria.



Bolatokia.




Petrikiloren monumentua.




Minatako labeak.




Minatako zuloak.



Larraondoko zerrategia.



Arane baserria.



Etxeberri baserria.

ZUMARRAGA

Etimologikoki Zumarraga euskarazko “Zumarra” hitzetik dator. Horrenbestez, zumarrez betetako gune bat adierazten du.

Ulmazeoen familiako zuhaitz hori oso ohikoa da gure lurretan. Egur gogorrekoa da eta sarritan erabili izan da altzariak, gurdien gurpilak edota karrozeriak egiteko.

Zumarraga aipatzen duen lehen dokumentua 1383koa da. Urte hartan Urretxurekin herritartu zen. Urretxuk hiribildu kategoria eskuratu zuen urtebete lehenago Gaztelako Joan I erregearen eskutik, Villarreal de Urrechua izenarekin. Segurako hiribilduak bere eskubideak eskatu zituen eta bi hiribilduak elkartzea lortu zuen, sei urte beranduago berriro banandu baziren ere.

Zumarragak 1661ean lortu zuen hiribildu-titulua eta Probintziako Batzar Nagusietara ordezkariak gehiegi ordaindu gabe bidaltzeko Ezkio eta Gaviriarekin elkartu zen, 1663an Argisaoko Santa Krutzen Batasuna osatuta.

Zumarragan jaio zen Miguel Lopez de Legazpi, XVI. mendean Espainian garrantzitsua izan zen pertsonaia, 1571n Filipinar Uharteen artxipelagoa konkistatu baitzuen. Bere jaiotetxe izan zen dorretxea zutik dago oraindik herrian.


Bertako parrokia-eliza Jasokundearen Andre Mariari eskainia dago eta 1573. urtean hasi zen hartako eraikuntza, 35 urte beranduago amaitu bazuten ere.

Zumarragan dago, era berean, Santa Isabel ermita, “La Antigua” izenarekin ezagunagoa dena. Euskal Herriko ermiten katedraltzat jotzen da, izan ere, egurrezko egitura zinez ikusgarria du. Lehen parrokia zen hura. Hori dela eta, uztailaren 2an ospatzen dira festak.


Orobat, San Cristobal ermita aipatu behar da eta, duela hamaika urtetik, herrigunean dagoen bigarren parrokia, San Salvadorri eskainia.

Maltzaga eta Zumaiara zihoazen trenbideak kendu ziren artean, Zumarragan hiru tren-geltoki zeuden. Aipatutako biak eta Norteko trenbidearena, egun RENFE dena eta geltoki handia duena.


Abenduaren 13an, Santa Luzia egunez, zaldi-aziendarekin eta landa-produktuekin azoka ezaguna ospatzen du, alboan dagoen Urretxu herriarekin batera.



Udaletxea.



Migel Lopez de Legazpi jaio zeneko dorretxea.



Legazpiren jaiotetxeko atea.




Andre Maria Zeruratuaren Parrokia.




Santa Isabelen Ermita.




Santa Isabelen Ermitako atea.



San Isabelen Ermitako leihoak.



San Gregorioren Ermita.



San Kristobalen Ermita.



Tourseko San Martinen Parrokia. Aginaga auzoa.



Beasaingo udala